

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **«ERANTZUKIZUN SOLIDARIO AKTIBOA ZEHAZTUGABEKO BANKU KONTUETAN»**

## **GRADU BUKAERAKO LANA**

ZUZENBIDEKO GRADUA  
ZUZENBIDE FAKULTATEA. BIZKAIKO ATALA  
2020-2021 IKASTURTEA

Egilea: Isabel Villaño Linaza  
Zuzendaria: Leire Imaz Zubiaur

# AURKIBIDEA

<b>I. Obligazioa eta erantzukizuna</b>	<b>Orr.</b>
1. Zuzenbide erromatarra, aurrekari eta abiapuntua.....	5
2. Obligazioaren kontzeptu juridikoa eta bere nahitaezko elementuak.....	8
3. Zorra eta erantzukizuna .....	13
4. Erantzukizun motak eta subjektu aniztasuna.....	14
<b>II. Solidaritatea</b>	
1. Kreditu eta zorra solidarioaren kontzeptua eta Kode Zibileko 1137. artikulua interpretazioa: Auzitegi Gorenaren esku-hartze zuzentzailea.....	18
2. Kanpo-harremana.....	21
3. Barne-harremana.....	23
<b>III. Erantzukizun solidario aktiboa zehaztugabeko banku kontuetan</b>	
1. Sarrera.....	24
2. Barne-harremana: Titularren arteko lotura juridikoa.....	26
3. Kanpo-harremana: Titularrek banketxearekiko duten lotura juridikoa	
3.1: Aldeen posizio juridikoak.....	28
3.2. Banku kontu bereizgabeen izaera juridikoa eta azterketa.....	30
4. Titular batek eskatutako aldebakarreko blokeoa.....	39
5. Titular baten heriotza	
5.1. Banketxearen posizio juridikoa.....	43
5.2. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren bilakaera.....	45
<b>IV. Ondorioak.....</b>	<b>59</b>
<b>V. Bibliografia.....</b>	<b>64</b>

## LABURDURAK

AG	Auzitegi Gorena
Art	Artikulua
BSCH	Banco Santander Central Hispano
KZ	Kode Zibila
PA	Probintzia-Auzitegia
PZL	Prozedura Zibilaren Legea

## SARRERA

Lan honek ibilbide luzea egiten du Erromatar Zuzenbidean eratzen den obligaziozko harremanen kontzeptutik gaur eguneko banku-harremanen baitan sortzen diren erlazio juridikoen eremura. Ez da oso sakonduta dagoen arloa, eta, horregatik, aztertzea erabaki dut. Horrela, banku-kontratuek dituzten berezitasunak ikus daitezke; izan ere, bankuaren eta bezeroaren artean ezarritako harremanak obligaziozkoak dira. Hala ere, ez dute funtzionamendu eta eduki berbera, eta berezitasun horiek lantzen dira lan honetan.

Ikerketa hau betebeharr juridikoarekin hasten da, haren izaera juridikoa, edukia eta funtzionamendua aztertuz. Ondoren, lanak aurrera egin ahala, banku-kontratueta zentralizatu gara. Zehazki, hainbat titularren izenean eratuta dauden banku-kontratueta. Oso ohikoa da gaur egun baterako kontuak irekitzea, familia arrazoiengatik (anai-arreben artean), ezkontza arrazoiengatik (ezkontideen artean), arrazoi profesionalengatik (sozietate baten administratzaileen artean) edo arrazoi ekonomikoengatik (inbertitzaileen artean). Baina bezero gutxik menderatzen dute irekitzen eta mantentzen dituzten kontuen araubide juridikoa, erregimena edo bien arteko desadostasunen kasuan eratorri daitezkeen ondorioak. Gainera, lanak gaur egungo gatazka handienak sortzen dituzten egoeratan sakontzen du: titular baten heriotza, batez ere, interes kontrajarriak daudelako agertoki honetan. Legezko arau nahikorik ez dagoenez, azken hamarkada hauetan sortutako jurisprudenzia-doktrina funtsezkoa izan da harreman horien araubidea eta edukia definitzeko, eta, horregatik, lan honetan Auzitegi Gorenaren epaietan sakontzen da. Bestalde, gaur egun bizi garen munduan, globalizatuta eta digitalizatuta, milaka banku-eragiketa, inbertsio eta akzio-erosketa egiten dira telefono mugikorrarekin, eta baliteke egungo legeria modernotasun horietara ere egokitu ez izana. Amaitzeko, indarrean dagoen legedia eta urteen poderioz Auzitegi Gorenak emandako doktrina ikertu ondoren, horren ondorioak eta gogoetak aterako dira.

# I. OBLIGAZIOA ETA ERANTZUKIZUNA

## 1. Zuzenbide Erromatarra, aurrekari eta abiapuntu

Obligazioaren kontzeptu juridikoak Zuzenbide Erromatarrean du bere jatorria (*obligatio*). Garai hartan obligazioak izaera pertsonala zuten figura tipiko bezala hartzen ziren eta *Ius Civile*-ak arautzen zituen. Obligazioa oinarri hartuta eratutako harreman juridikoa, berez, subjektuek egindako egintza formal eta espezifiko baten bidez sortzen zen, *nexum* deitutakoa. Erromatar juriskontsultoei obligazioa “lotura” bezala definitzen zuten, bere existentziarako gutxienez bi pertsona jakin behar baitziren<sup>1</sup>. Obligazioen sistema erromatarra ez zen erregimen baztertzaila, obligazioaren kausekin identifikatzen ziren akzio multzo handiak biltzen baitzituen. Nolabaiteko malgutasuna zegoen kasu berriak integratzeko, *stipulatio*aren<sup>2</sup> aldakortasunari esker<sup>3</sup>. Horretan oinarrituta, jurisprudentzia erromatarrak obligazio berriak sortu zituen, auzitan jartzeko moduak aurreikusten zituztenak. Hortik eratoritzen dira obligazioen sistema erromatarraren lehen garapenak; obligazioak nola sortu ziren kontuan hartzen zuten honako hauek zerrendatzeko orduan: *actio penal*, *actio incerti*<sup>4</sup>, *actiones bonae fidei*<sup>5</sup> eta *conditio*<sup>6</sup>. Obligazioa edo prestazioa betetzera behartuta geratzen zena *obligatus* deitzen zen eta lotuta zegoen, bere dimentsio eta entitate fisikoan, hartzekodunarekin. Hau da, zorduna (*obligatus*) behartuta eta mugatuta aurkitzen zen, kateamendu egoeran. Hartzekodunak *obligatus* pertsonarengan ahalmen handia zeukan eta, horrenbestez, obligazioa ez betetzekotan esklabo bezala saldu edo hil zezakeen. Neurrigabeko

---

<sup>1</sup> GARIJO E ISASA, Manuel: “Obligaciones solidarias en Derecho romano”, *Revista general de legislación y jurisprudencia*, 21. liburukia, 55 zenbakia, 1879, 218-240 orrialdeak.

<sup>2</sup> Hitzeko kontratua, aldebakarrekoa eta abstraktua, non hartzekodun izango zenak etorkizuneko zordunari galdetzen zion ea prest zegoen zerbait betetzeko (gauzaren bat entregatzeko edo zerbitzuren bat egiteko); zordunak hitzemanen erantzuten zuenean, jokabide horretara behartuta geratzen zen.

<sup>3</sup> GIMÉNEZ-CANDELA: *Derecho Privado Romano*, 2. argitalpena, Tirant lo blanch, Balentzia, 2020, 329-332. orrialdeak.

<sup>4</sup> Promesa formal batetik eratorritako obligazioak zigortzen ditu.

<sup>5</sup> Fede onean oinarritutako aldeko hitzarmenak zigortzen ditu.

<sup>6</sup> Gauza entregatetik sortutako betebeharrak eta itzultzeko betebeharra zigortzen ditu.

botere honen oinarria hartzekodunak zeukan *actio in persona*<sup>7</sup> akzioan zegoen, berak soilik baitzeukan hura egikaritzeko ahalmena eta, hortaz, zorduna zen pertsona fisikoaren aurka jo zezakeelako. Hortik ondoriozta dezakegu *obligatio* izaera mantentzen dela gaur egungo ordenamendu zibilean; kontzeptu juridikoak bere baitan daraman lotura pertsonala, hain zuzen ere. Era berean, Erromako obligazioaren izaerak beste baten izenean edo beste batentzat betebeharrak eratzeko aukera eragozten du. Hortaz, araua (*nemo alteri stipulare potest*) oinarritzen da bakoitzak soilik bere pertsona, bere burua, lotu ahal izatean; horren ondorioz, baieztatu dezakegu obligazioaren jatorrizko eskualdaezintasuna Zuzenbide Erromatarretik datorrela.

Erroman egoera honek, obligaziozko harreman juridikoak hartzekodunari esleitzen zizkion botere eta ahalmenei dagokienez, biztanleen arteko liskarrak ekarri zituen. Klase sozialei erreparatuta, batez ere, patrizioek eta plebeioek ideia kontrajarriak zituztelako. Plebeioak obligazioa ez betetzearen ondorioekin ez zeuden eroso ezta konforme ere (mendeku pribatua, esklabotza, heriotza...). Hau dela eta, *Poetelia Papiria* legea eratu zuten eta honi esker, obligazioaren ondoriozko erantzukizuna ezin zen gauzatu pertsona fisikoaren aurka, zordunaren ondasunen aurka baizik. Aipatzekoa da arau hau, bereziki, gaur egun mantentzen baita Kode Zibilaren 1911. artikuluan (*Del cumplimiento de las obligaciones responde el deudor con todos sus bienes, presentes y futuros*). Erromatar zuzenbidearen bilakaerari esker, zordunaren ondarea finkatzen da hartzekodunaren interesa asetzeko euskarri bakar gisa. Bestalde, Zuzenbide Erromatarra ere banku-zuzenbideaz arduratu zen, *sui generis*<sup>8</sup> erregulazio juridikoa beharrezkoa baitzen bankuaren kontrataziorako, arau sinpleagoekin. Gayok erakutsi digu konpentsazioa alde aurreko eta nahitaezko eragiketa bat zela bankuarentzat bere bezeroari zorra erreklamatzeko, eta saldoaren kopurura soilik erreklamatu zezakeela, bestela demanda baztertu egiten baitzen *plus petitio* agatik. Arau hori KZaren 1202.<sup>9</sup> artikuluan jasota dago gaur egun. Fidantzari dagokionez, bankari erromatarrak euren bezeroen fidatzaileak ziren *receptum* itunaren bidez, zeinaren bidez besteren

---

<sup>7</sup> DÍEZ-PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho civil patrimonial*, 6. argitalpena, Civitas, Madril, 2008, 66-70 orrialdeak.

<sup>8</sup> Berezia, apartekoa

<sup>9</sup> KZaren 1202. art: *Kompentsazioaren ondorea da zor bat eta bestea azkentzea, horien kopuruek bat egiten duten neurrian, nahiz eta hartzekodunek eta zordunek horren berririk izan ez.*

zor bat ordaintzeko konpromisoa hartzen baitzuen. Ondoren, Justiniano izan zen bankarien aldeko interes-tasak eskubide osoz aitortu zituena<sup>10</sup>.

Zuzenbide Modernoak printzipio honen ikuspegia garatu zuen eta egiteko edo ez egiteko kondenak onartu zituen, diru-kopuruaren tasazioa aldatu behar ez izateko Erroman egiten zen bezala (*litis aestimatio*). Bestalde, garai hartan hasi zen obligazioa komertzializatzen, helburu ekonomikoetarako tresna gisa. Merkaturatze horri esker, kredituak eta zorrak transferitu ahal izango dira eta eskualdaketa burutzeko aukera horrek hainbat hartzekodun edo zordun egoteko beta sortuko du, aurrerago sakonago aztertuko dugun bezala. Ideia hauetan oinarrituta, obligazioaren kontzeptu klasikoa finkatzen da, zeinaren arabera bere baitan zordunaren betebeharra eta hartzekodunaren kreditu-eskubidea barnebiltzen diren. Horrela, kreditu-eskubidearen eta eskubide errearen berezitasunak eta eremuak argiago nabaritzen dira<sup>11</sup>. Biak ondasun-zuzenbidearen barruan daude kokatuta eta balio ekonomikoa daramate; hala ere, eskubide errealek gauzei buruzko titulartasuna ematen diote eskubidearen titularrari eta kreditu-eskubideek, berriz, zordunaren jarrera jakin bat galdatzeko ahalmena esleitzen diote hartzekodunari. Eskubide errealek pertsonen dakartzkien betebeharrak ez dira benetako obligazioak, zentzu hertsian, baizik eta eskubide errearen eta haren edukiaren zati baten ondorio hutsa. Aitzitik, betebeharrekin, *stricto sensu*, berez islatzen dute eskubide baten edukia, forma independentea ematen diote, eta xedatzeko autonomia merkataritza juridikoan. Kreditu-eskubidea obligazioaren parte diren pertsona batzuek baino ezin dute erreklamatu; horrenbestez, eskubide pertsonala ere esaten zaio. Izaera erlatiboko eskubidea da, *inter partes* izenekoa (inplikaturako alderdiei aplikatuta), ez zaielako aplikatzen subjektu guztiei. Bestalde, eskubide errealetan subjektuaren eta objektuaren arteko loturak agertzen dira, zeintzuen eraginez titularrak bere ahalmen juridikoa egikaritzen baitu gauzarengan. Aldi berean, *erga omnes* izaera du eskubide errealak, aurkagarria delako hirugarrenen aurrean. Obligazioak mundu modernoan izan duen funtzio ekonomikoa azpimarratzekoa da; izan ere, globalizazioaren eta industrializazioaren ondorioz, obligazioa ekonomia dinamizatzeko bide juridiko bihurtu da ondasunak edo zerbitzuak trukatzeko tresna gisa.

---

<sup>10</sup> GARRIGUES, Joaquín: *Contratos bancarios*, Madril, 1958, 42. orrialdea.

<sup>11</sup> RODRÍGUEZ ENNES, Luis: “La “Obligatio” y sus fuentes”, *Revista internacional de Derecho Romano*, 2. liburukia, 2009, 90-126. orrialdeak.

## 2. Obligazioaren kontzeptu juridikoa eta bere nahitaezko elementuak

Espainiako Kode Zibilak ez du obligazioaren kontzeptu argirik edo finkorik eskaintzen, baina araututa badago Kode Zibilaren IV. liburuan: *betebeharrak eta kontratuak*. Zuzenbide Zibilak barnebiltzen duen adar bat da; pertsonen arteko harreman pribatuen araudiaz arduratzen da harremanak obligazio juridikoa barnebiltzen duenean. Obligazio oro gutxieneko bi alde lotzen dituen lotura juridikoa da eta aldeak harreman horren subjektu bihurtzen dira. Lehen esandakoarekin lotuta, Kode Zibilaren 1088. artikulua obligazioaren funtsa azaltzen digu: *Betebehar oro zerbait eman, egin edo ez egite horretan datza*. Beraz, obligazioa sortzerakoan gutxienez betebehar juridiko bat jaiotzen da eta, aldi berean, eskubideen eskurapena eragiten du. Hain zuzen, hartzekoduna kreditu-eskubidearen titularra izango da eta zordunak obligazioa betetzearen zama eramango du. Bestalde, obligazioa betetzea eta prestazioa betetzea baliokideak dira. Prestazioa legezkoa, posiblea eta zehaztua edo zehaztagarria izan behar da. Legez kontrakoa izango da legearen aurkakoa den prestazioa, Kode Zibilaren 1255. artikulua arautzen duen moduan. Artikulu horrek argi erakusten ditu kontratuaren mugak; izan ere, alderdiek ontzat hartzen dituzten baldintzak ezar ditzakete, betiere legearen, moralaren edo ordena publikoaren aurkakoak ez badira. Legearen aurkakoa izango da *ius cogens* (beharrezko eta aginduzko zuzenbidea, ezin da bere edukia aldatu edo baztertu) arau bat urratzen denean, alderdien autonomiari gailentzen baitzaio<sup>12</sup>.

Horrekin lotuta, 1271. artikulua ezartzen du kontratuaren objektua merkataritzaren barruan egon behar dela. Horrenbestez, prestazioaren ez-zilegitasunak kontratuaren eta obligazioaren deuseztatzea dakar. Prestazioak hainbat eduki izan ditzake obligazio ororen objektu gisa eta beti posiblea izan behar da; hau da, betetzeko bideragarria. Azken baldintza prestazioaren zehaztapena da, subjektu pasiboak jakin behar duelako zein den bete behar duen ekintza. Prestazioa jokabide batean datza baina hiru eratan agertu daiteke: *emateko, egiteko edo ez egiteko jokabidea*. Beraz,

---

<sup>12</sup> ARNAU MOYA, Federico: *Lecciones de Derecho Civil II: Obligaciones y contratos*, Colección jurídica y económica Sapientia Publicacions, Universitat Jaume I, Balentzia, 2009, 19-23. orrialdeak.



jokabidea ondasunetara, zerbitzuetara edo abstentzioetara lotuta dago.<sup>13</sup> Era berean, prestazioaren edukia desberdina da egindako harreman juridikoaren arabera baina prestazioa legezkoa izango da aipatutako baldintzak betetzean. Amaitzeko, prestazioak balore ekonomikoa eta ondarezkoa izan behar du zordunak erantzun dezan. Hau funtsezkoa da prestazioa ez denean likidoa, balore bat jartzea posiblea izan behar delako<sup>14</sup>.

Harreman juridiko hauetan galdagarritasuna eta nahitaezkotasuna nabaritzen da. Prestazioa betetzeko betebeharrak konkretua dago eta horren ardura zordunak darama. Honek esan nahi du hartzekodunak prestazioaren betearazpena erreklamatzeko ahalmena duela. Beste modu batean esanda, hartzekodunaren kreditu-eskubideak berekin dakar zordunari emateko, egiteko edo ez egiteko prestazioa eskatzeko ahalmena. Nahiz eta zordunak obligazioa ez bete, prestazioa bermatuta dago bere ondare aktiboarekin. Horrela dio Kode Zibilarren 1911. artikuluko hartzekodunari segurtasun juridikoa finkatzen dioenean: *Betebeharren betetzearen gain, zordunak erantzukizuna du bere ondasun guztiekin, oraingoekin nahiz etorkizunekoekin*. Honi esker, hartzekodunaren arriskua murriztuta dago eta alderdien interes pribatuak asetzen dira<sup>15</sup>.

Kreditu- harremanak honako elementu hauek ditu: subjektuak, xedea, lotura eta kausa.

a) **Subjektuak edo alderdiak:** Subjektu aktiboa (hartzekoduna) eta pasiboa (zorduna) beti aurkituko ditugu. Printzipioz, harreman juridiko honen subjektu izan daitezke kreditu baten titular izateko gaitasun osoa duten subjektuak. Gaitasun juridikoaren harira kontuan hartu behar da 2020ko uztailaren legegintza zibilarren erreforma abiatu egin zela Diputatuen Kongresuan. Lege-proiektu honen bidez sustatu, bermatu eta babestu nahi izan dira, 2021eko martxoan berretsitako erreforma hau dela medio, desgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak. Eraldaketa honen jatorria desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenean dago, 2006ko abenduaren 13koa New Yorken egina. Nazioarteko tratatu

---

<sup>13</sup> VALPUESTA FERNANDEZ, Maria Rosario: *Betebehar eta Kontratuei buruzko zuzenbidea*, 2. argitalpena, Deustuko Unibertsitatea, Tirant to blanch, Bilbo, 1996, 51-57. orrialdeak.

<sup>14</sup> LACRUZ BERDEJO, José Luis: *Derecho de obligaciones. Parte General. Teoría general del contrato*, 5. argitalpena, Dykinson, Madril, 2011, 4-9 orrialdeak.

<sup>15</sup> PÉREZ ÁLVAREZ, Miguel Ángel: *Curso de Derecho Civil: Derecho de Obligaciones*, 3. argitalpena, Colex, Madril, 2011, 225-227 orrialdeak.

horren 12. artikulua aldarrikatzen du pertsona desgaituek gainerakoen baldintza berberetan gaitasun juridikoa dutela bizitzako alderdi guztietan, eta estatu kideak behartuta daudela neurri egokiak hartzera, desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzeko behar duten laguntza emateko<sup>16</sup>.

Modu honetan, ezgaituaren kontzeptua desagertuta geratzen da, baita ezgaitze prozedura ere, desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa printzipio orokor gisa aldarrikatuz. Tutoretza figura desagertzen da<sup>17</sup> adin nagusientzat, baita guraso ahalaen birjartzea ere. Kuradoretza erabiliko da laguntza neurri balioaniztun gisa; beraz, desgaitasun bat duen pertsona obligazioaren subjektu izan daiteke gaitasunaren kontzeptio berriaren oinarrian<sup>18</sup>. Bestalde, hartzekoduna prestazioa betetzea eskatzeko botere juridikoa duen kredituaren titularra da. Bestalde, alderdi pasiboan dago betebeharduna edo zorduna; prestazioa emateko betebeharra eta ez-betetzearen ondoriozko erantzukizuna berari dagokiona. Obligazioaren titular pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke, baldin eta prestazioan gertatzen den moduan zehaztuta badaude.

b) **Objektua:** Obligazio ororen objektua zordunak zor duena eta hartzekodunak erreklamatu dezakeena da; beste modu batean esanda, behartuak egin behar duen jokabidea erakusten duen elementu objektiboa da. Aipatutako jokabide horri prestazioa deitzen zaio, eta hainbat motatakoa izan daiteke. Prestazioa portaera zehatz bat da, obligazioa eratzean finkaturiko jarduera zehatza. Prestazio nagusiak edo osagarriak, zatigarriak edo zatiezinak, diruzkoak edo ez-diruzkoak daude. Izena berak dioen bezala, obligazio nagusiek autonomia dute, eta osagarriek, berriz, haietatik

---

<sup>16</sup> 2020ko uztailaren 17ko Lege-proiektua: *Legeria zibila eta prozesala eraldatzen duena desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko.* [https://www.congreso.es/public\\_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-27-1.PDF](https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-27-1.PDF)

<sup>17</sup> PZLaren 756. artikulua. Aplikazio-eremua eta eskumena: *Kode Zibilaren arabera kuradorea izendatu behar denean eta horretarako bideratutako borondatezko jurisdikzioko espedientean aurkakotasuna agertu denean, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da desgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak hartzea.*

<sup>18</sup> KZaren 1. Liburuaren XI. Titulua: *Desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabil dezaten laguntzeko neurriak.*

KZaren 9.6. artikulua: *Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriei aplikatu beharreko legea beren ohiko bizilekuari dagokiona izango da.*

jaiotzen dira. Esaterako, olioaren salerosketa-kontratu bat sinatzean, obligazio nagusia olioaren erostea izango da eta betebeharrak osagarria hirugarrenei ez saltzea izan liteke. Bestalde, prestazioa likidoa izan daiteke (diru-kopuru zehatz batek zehazten du), edo ez-likidoa (auto bat ematea). Azken bereizketa hori prestazio zatigarri eta zatiezinekin lotuta dago; izan ere, diru-kopuru bat zatitu daiteke, baina auto bat ezin da zatitu. Hala ere, aipatzekoa da prestazioaren izaera zatigarriak ez dakarrela hura partzialki betetzeko ahalmena, eta, beraz, zorduna ere behartuta egongo dela hura osorik betetzera. Baina subjektu anitz aurkitzen ditugunean gatazkak agertu daitezke; izan ere, erantzukizun mankomunatuak kreditua zatitzea dakar eta zatiezintasunak, berriz, zatitzeko aukera baztertzen du. Dena den, gatazka hauei interesa jarriko diegu lan honetan zehar.

**c) Lotura:** Loturak harreman juridikoaren aldeak lotzen ditu eta haren ondorio juridikoak sortzen ditu. Hau da, loturak subjektuei eragiten die eta bertan barnebiltzen ditu zorra (prestazioa emateko betebeharrak) eta kreditua (prestazioa eskatzeko eskubidea). Nahitaezko elementua da efektu juridikoak bereganatzeko eta hemendik sortzen dira betebeharrak eta ondorioak. Aipatzekoa da lotura horrek soilik obligazio juridiko hori ezartzea erabakitzen duten alderdiak baino ez dituela lotzen; hau da, ez die hirugarrenei eragiten. Bestalde, lotura pertsonen artean bakarrik sor daiteke, eta ez objektuen artean, eskubide errealekin gertatzen den bezala. Laburbiltzeko, lotura juridikoa aldeek (zorduna eta hartzekoduna) haien artean bere eskubideak barnebildutako efektuak eskatzeko tresna edo mekanismoa da. Lotura horren jatorria izan daiteke langile baten eta enplegatzaile baten arteko lan-kontratua, ezkontideen arteko ezkontza edo partikularren arteko errentamendu-kontratua, besteak beste. Horrez gain, Kode Zibilaren 1089. artikulua obligazioaren iturriak zerrendatzen ditu finkatzeko zein egitatekin jaio daitezke<sup>19</sup>.

**d) Obligazioaren kausa:** Obligazioaren arrazoia edo helburua da. Kontratu batez bidez sortutako lotura edo harreman juridiko guztien bidez lortu nahi den zuzeneko eta berehalako helburua<sup>20</sup>. Gure Kodeak berariaz kausa zehazten du kontratuaren eta horren ondoriozko

---

<sup>19</sup> “Betebeharrak sortzen dira legetik, kontratu eta kuasikontratuetatik, eta zilegi ez diren egite nahiz ez-egiteetatik, eta edozein motatako erru nahiz zabarkeriarekin burututako egite eta ez-egiteetatik ere bai”.

<sup>20</sup> DE PABLO CONTRERAS, Pedro: *Curso de Derecho Civil (II). Derecho de Obligaciones*, 3. argitalpena, Colex, Madril, 2011, 368-379 orrialdeak.

obligazioaren betekizun gisa<sup>21</sup>, eta, gainera, Kapituluko bereko 3. Atalean kontratuen kausaz dihardu zehazki. Atal horretako 1274. artikuluko<sup>22</sup> islatzen duen ideiak obligazioaren funtsezko betekizuntzat hartzen du kausa, behartzen den orok arrazoi batengatik egiten duelako<sup>23</sup>. Prestazioa betetzeko jokabidea exijitzeko jasotzen duen eskubide orok aurrekari arrazoi bat izan behar du, kausa hori justifikatzen duen oinarri bat, edo modu errazagoan esanda, inork ez du ezer zor ezergatik. Hala ere, 1274. artikuluko ez du kausaren kontzepturik ematen, baizik eta hiru irizpide desberdin ematen ditu, eta irizpide horiek inkongruenteak dira. Horregatik, interpreteak behartuta daude kausaren nozioari buruz ikertzera. Homogeneotasun eza dago, hainbat kontzeptu emanez errealitate desberdinak balira bezala; izan ere, artikuluko ez du inolako definiziorik ezartzen. Kausa zehazteko hiru irizpide besterik ez ditu ematen, baina kontratu bakoitzak bere kausa du, eta horrek bereizten du kontratu mota bat beste kontratu mota batengandik. Gaur egun kausak ez du inolako pisu juridikorik kontratuen eremuan, KZaren 1274. Artikuluko xedatzen duenari erreparatzen badiogu. Badu zer esan kausak, berez, alderdiek klausula edo baldintza gisa txertatzen dutenean kontratuan. Horregatik, gaur egun zalantzan jartzen da obligazio baten elementu izateko duen funtzionaltasuna<sup>24</sup>. Izatez, Espainiako Zuzenbide Zibileko Irakasleen Elkarteak eginiko Kode Zibil berriaren proposamenean, kausari buruzko erreferentzia ezabatu da, kontratuaren derrigorrezko elementu gisa<sup>25</sup>.

---

<sup>21</sup> KZaren 1261. artikulua: *Ez dago kontraturik, hurrengo betekizunak gauzatzen direnean baino: (...) 3. Kontratuak ezarritako betebeharraren karia.*

<sup>22</sup> KZaren 1274. artikulua: *Kostu bidezko kontratuetan, alderdi kontratugile bakoitzarentzat kontratuaren karia izango da beste kontratugileak gauza edo zerbitzu bat eman edo hitzmatea; ordaintzeko kontratuetan, ordaindu beharreko zerbitzua edo onura; eta, ongintza hutsekoetan, ongilearen eskuzabaltasuna.*

<sup>23</sup> DÍEZ PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho Civil Patrimonial: Introducción a la Teoría del Contrato*, 4. argitalpena, 1. liburukia, Civitas, Madril, 1993.

<sup>24</sup> OCALLAGHAN MUÑOZ, Xavier: *Código civil comentado y con jurisprudencia*, 8. argitalpena, Wolters Kluwer, 2016, 1343. orrialdea.

<sup>25</sup> [https://www.derechocivil.net/images/libros/obra\\_completa.pdf](https://www.derechocivil.net/images/libros/obra_completa.pdf)

### 3. Zorra eta erantzukizuna

Betebehar juridiko orok bi elementu bereizezin dakartza berekin: zorra eta erantzukizuna. Hala ere, kontzeptu horiek bereiztea komeni da, nahastu egin baitaitezke edo sinonimoak direla pentsa baitaiteke. Biak subjektu berari dagozkio, zordunari, nahiz eta bere efektuak une edo fase desberdinetan agertzen diren. Horregatik, bi fase bereizi behar dira: lehenengo fasean, obligazioa sortzen den unea, subjektua prestazioaren zordun bihurtzen denean; eta bigarren fasean, zordunak ez duenean bere betebeharra betetzen, bere jokabidea dela eta, beraz, zaildu egiten du prestazioa betetzea. Horrela, zordunak zorra bereganatzen du betebeharra sortzen den unean, eta zorra betetzen ez badu, bere oraingo eta etorkizuneko ondasunekin erantzungo du<sup>26</sup>.

Kontzeptu horiek Zuzenbide Erromatarrean dute jatorria, betetzeko betebeharraren (zorra) eta zorduna betearazpenari lotzeko aukeraren (erantzukizuna) arteko elkarrekikotasunaren bidez. Garai hartan, obligazioaren ez-betetzeak zordunari egotzi ahal bazitzaion, hartzekodunari prestazioa judizialki erreklamatzeko aukera ematen zion *moras debitoris* bidez zordunaren aurka<sup>27</sup>. Urteen poderioz ezartzen da obligazioaren betearazpenak ondarea biltzen duela, ez behartuaren pertsonaren gainean, eta, beraz, zordunaren erantzukizuna nagusiki ondarearen ingurukoa da eta horrela iritsi da gure garaira. Aipatzekoa da salbuespenak daudela non erantzukizuna ez den zorrarekin lotuta geratzen, hurrengoak izanda: obligaziorik gabeko zorra (obligazio naturalak denok ditugun betebehar sozialak dira baina ez gaude juridikoki behartuta edo lotuta, adibidez dirua ematea txiro bati), erantzukizun mugatuta (inbentario onura onarpena egiterakoan, babestu nahi baitira ondare propioak) eta zorrik gabeko erantzukizuna (hipotekak edo bahiak ematen duena bermatzailea zorduna ez denean; kasu hauetan bere ondare propioarekin erantzuten du bermea jarri duenak baina beste baten zorraren aurrean, berak ez egindakoa. Zordunaren zorraren aurrean

---

<sup>26</sup> ESTEV, Asunción: *Deuda y responsabilidad*, Bartzelonako Unibertsitatea, 2019, 1-3 orrialdeak. <https://www.studocu.com/ca-es/document/universitat-de-barcelona/obligaciones-y-contratos/apunts/tema-3-deuda-y-responsabilidad/2875718/view>

<sup>27</sup> RASCÓN GARCÍA, César: *Manual de Derecho Romano*, 2. argitalpena, Tecnos, Madril, 1996, 229-231. orrialdeak.

erantzungo du bermatzaileak honek ez duenean obligazioa betetzen eta hartzekodunak bermatutako ondasuna exekutatzen duenean)<sup>28</sup>.

#### 4. Erantzukizun motak: Subjektu aniztasuna

Betebehar juridiko guztietan gutxienez bi alde egon behar dira, aktiboa eta pasiboa. Ohikoena da titulartasun aktiboa eta pasiboa hartzekodun edo zordun berak izatea; horregatik, zordun bat dagoenean, soilik berak du erantzukizuna. Hala ere, batzuetan, titulartasun horiek hainbat pertsonak hartzen dituzte beren gain eta subjektu aniztasuna jaiotzen da; hau da, prestazio batek subjektu aniztasuna barnebildu dezake. Aniztasun hori bi modutan antola daiteke: *hartzekodun aniztasuna eta zordun aniztasuna*. Hala eta guztiz ere, bi aniztasunak topatu daitezke prestazio berdinean hainbat zordun eta hartzekodun daudelako aldi berean: subjektu aniztasun misto. Asko dira subjektuen aniztasuna antolatzekeko irizpideak; horiek finkatzeko subjektuen borondatea kontuan izan behar dira eta hurrenik, betebehar izaera juridikoa. Obligazio hori hainbat pertsonak osatzen dutenean, *solidaritatea* edo *mankomunitatea* fenomenoak sortuko dira. Biak harreman juridikoari aplikagarriak izan daitezke; Kode Zibilaren 1137. artikulutik 1139. artikulura araututa egonda eta mota bakoitzak printzipio eta helburu desberdinetan antolatzen da. Subjektu aniztasuna lotura juridikoa eratzean edo ondoren sortu daiteke (hainbat pertsona jaraunse bihurtzean kausatzaileak edukitako zorra bereganatzen dute, adibidez) eta fenomeno honekin topo egiten ditugunean, Kode Zibilak aplikatu behar den erregimen juridikoa arautzen du. Honen bidez, subjektuen aniztasunak prestazioan eragindako ondorioak zerrendatzen ditu. Nahiz eta Kode Zibilak soilik bereizi mankomunitatea eta solidaritatea, mankomunitatearen barruan bi sailkapen daude prestazioa zatiezina izan daitekeelako: mankomunitate zatigarria eta zatiezina. Zatigarritasuna prestazioaren izaeratik ateratzen da; beraz, obligazioa zatiezina da zatitzeko aukerarik ematen ez duenak (adibidez, zaldi bat edo koadro bat ematea) edo modu partzialean bete ezin denean (kontzertu batean abestea). Ordea, zatitu edo zatika bete daitezkeen gainerako betebeharrak zatigarriak izango dira. Sailkapen honetan iritzi kontrajarriak daude doktrinaren aldetik, zeren eta Kode Zibilak bi sailkapen soilik aurreikusita baititu (*De las obligaciones*

---

<sup>28</sup> “Deuda y Responsabilidad”. Enciclopedia Jurídica: <http://www.encyclopedia-juridica.com/d/deuda-y-responsabilidad/deuda-y-responsabilidad.htm>

*mancomunadas y solidarias*) baina, beste alde batek, DÍEZ-PICAZOK ordezkaten duen iritzitaldea, hirugarren bereizketaren existentzia aldarrikatzen du. Autore horientzat, obligazio partziarioak independenteak dira mankomunitateak ez dituelako barnebiltzen. Honen interpretazioa bere definiziotik ondoriozta daiteke. Mankomunitateak “esku komunean” esan nahi du, guztion parte hartzea eta egikaritzea edo ekintza bateratua. Honen esanahia edo edukia mankomunitate zatiezinetan aplikatzen da soilik, zatigarrietan dauden zatiak autonomoak direlako. Horregatik, batzuetan, prestazioaren zatiezintasunak ezarriko du araubide juridiko aplikagarria<sup>29</sup>.

Hasteko, KZaren 1138. artikulua prestazioaren banaketaren presuntzioa finkatzen du: “*Zenbat hartzekodun edo zordun izan eta kreditu edo zorra beste horrenbeste zatitan banatu dela uste izango da, eta kreditu edo zor horiek elkarren gain lokabetzat hartuko dira*”. Printzipio honen bidez, kreditua edo zorra berdintasunez bananduko da subjektu kopuruaren arabera, bakoitzak kuota proportzionala izan dezan. Horrez gain, behin prestazioa bananduta, kide bakoitzaren kreditu edo zorra independenteak izango dira. Zorra edo kreditua autonomia printzipioaren arabera arautzen da, zeinean horietako bakoitzean obligazioaren arau orokorrek gobernatzen baitute. Horren ondorioz, haietako bati eragin diezaioketen aldaketek (preskripzioa, berritzea, berandutza...) ez dituzte gainerakoak eragiten. Autonomia printzipioa zordunaren kaudimengabezia dagoenean ere aplikatu behar da, gainerako zordunek ezingo baitute bere gain hartu. Arau honetan sartuta dauden betebeharrak obligazio mankomunitateak deritzote, partziarioak ere izendatukoak (*pro parte, pro rata*)<sup>30</sup>. DÍEZ-PICAZOK prestazioaren zatiketari ipintzen dio garrantzia eta ez aniztasunari; aniztasuna banaketarekin konpontzen delako eta modu horretan obligazio partziario deitzen die, ez mankomunitate. Hori izango da obligazioetan aplikagarria den printzipio orokorra subjektu aniztasun kasuetan prestazioa zatitu ahal denean. Izaera orokorrerako presuntzioa da, zeinaren arabera Kodeak lehentasuna ematen dion obligaziozko harreman juridikoari aplikatzeko. Aitzitik, zatigarritasun printzipioak alderdien borondatea errespetatzen duenez, presuntzioa apurtu daiteke hala ezartzen badute alderdiek, obligazioaren izaerak zatiketa eragozten duenean edo interpretazio arauak hori ondorioztatzen dutenean. Aipatutako artikulua

---

<sup>29</sup> LASARTE, Carlos: *Curso de Derecho Civil Patrimonial*, 18. argitalpena, Tecnos, Madril, 2012, 443-448 orrialdeak.

<sup>30</sup> RAMÓN CHORNET, Juan Carlos: *Código Civil Comentado*, 3. liburukia: *De las obligaciones y los contratos*, Aranzadi Civitas, Zizur Behera, 2011, 275-281 orrialdeak.

bi egoera azaltzen ditu: alde batetik, mankomunitate aktiboa (hartzekodunen aniztasuna), non hartzekodun bakoitzak zordunari bere kredituaren zati proportzionala bakarrik eskatu ahal izango dion. Bestalde, mankomunitate pasiboa (zordunen aniztasuna), zeinean zordun bakoitzak bere kuota proportzionala soilik bete behar duen. Bi kasuetan, alderdiek prestazioaren zatiketa nola egin erabaki dezakete, baina akordiorik hitzartu ez bada, zorraren edo kredituaren berdintasunezko presuntzioa aplikatu behar da. Zorra edo kreditua zati berdinetan banatuko da bilduta dauden subjektuen arabera.

Aurrean esandakoarekin lotuz, KZaren 1139. artikulua mankomunitate zatiezina finkatzen du: *“Zatiketa ezinezkoa bada, hartzekodunen eskubideari kalte egin diezaiokete euren egintza kolektiboek bakarrik, eta zorra kobratu ahal izango da zordun guztien aurka jota bakarrik. Zordun horietako bat kaudimengabe gertatzen bada, gainerakoak ez daude behartuta haren gabezia betetzera”*. Kide bakoitzak zorra edo kredituaren zati bat bereganatzen du, baina ez dira elkarrekin independenteak aurreko kasuan bezala. Subjektuen ahalmen juridikoak egikartzeko nahitaez elkarrekin ekin behar dute; hau da, baterako jarduketa ezinbestekoa da obligazio zatiezinetan. Obligazio partziarioekin (1138. art) gertatzen den bezala, hartzekodunen edo zordunen mankomunitateekin topa gaitzke.<sup>31</sup> Mankomunitate pasiboan ondoriozta genezake zordun guztien baterako eta aldi bereko egintza egon behar dela prestazioa ordaintzeko. Aitzitik, alderdiek adostu dezakete entrega zatika egitea, posiblea izatekotan eta hartzekodunak onartuta. Hala ere, ez da ahaztu behar ez-betetze partzialak erabateko ez-betetzea ekarriko duela. Prestazioa atzeratzen denean edo betetzen ez denean, hartzekodunak ezin izango du egikaritu bere ahalmen juridikoa (kreditu-eskubidea) soilik bete ez duen zordunaren aurka. Zuzenbide prozesalaren ikuspegitik, artikulua honen eskakizuna nahitaezko auzikidetzara pasiboan (*litisconsorcio pasivo necesario*) datza, hartzekodunak baterako erreklamazio judiziala egin behar baitu zordun guztien aurka. Bestalde, mankomunitate aktiboa ez da oso ohikoa gaur egun gutxitan agertzen delako (ezkontzan ezkontideek kontratatutako musikaria adibidez) eta hortaz, ez dago egoki finkatuta nola izan behar den titularren jarduketa bateratua. Aitzitik, arau orokor gisa, hartzekodunek elkarrekin ekin behar dute, elkarri kalterik ez egiteko. Hala ere, kreditua defendatzeko edo kreditua lagatzeko egintza

---

<sup>31</sup> LETE DEL RÍO, José M.: *Derecho de obligaciones*, 1. liburukia, Tecnos, Madril, 1988, 34-40. orrialdeak.



banaka egin dezakete. Honen oinarria da hartzekodun batek ezin duela bestea kaltetu bere jarduketaren ondorioz; izan ere, harreman honek aukera ematen du egintza indibidualak egiteko, baldin eta hirugarrenei kalterik eragiten ez badie; gainerako kasuetan elkarrekin jardun behar dute<sup>32</sup>.

Aurreko artikulua bila joatean (KZaren 1137. art) beste suposamendu bat araututa dago; erantzukizun solidarioa. Honen bidez, *“hori (solidaritatea) gertatuko da, betebeharrak beren beregi hala zehaztu eta betebeharrak hori izaera solidarioarekin eratzen denean bakarrik”*. Honek esan nahi du obligazioaren aldeek erabaki dezaketela solidaritatea ezartzea. Horregatik, artikulua subjektuen akordioa eskatzen du nahitazko betekizun gisa solidaritatea sortzeko. Puntu honetan ikustekoa da artikulua ezartzen duena ez dagoela gaur eguneko egoera ekonomikoarekin lerrotua ezta egoki garatua ere, arauketa faltagatik. Azken finean, gaur egungo nazioarteko ekonomia eta globalizazioa dela eta, transakzio ekonomiak arin gauzatu behar dira. Hau dela eta, solidaritatea tazitua onartuta dago eta praktikan handituz doa. Mankomunitatean gertatzen den bezala, bi hipotesi egon daitezke: solidaritate aktiboa eta pasiboa. Modu honetan, hainbat hartzekodun daudenean (solidaritate aktiboa) edozeinek zorraren zati osoa erreklamatu dezake. Zordun bat baino gehiago egotean (solidaritate pasiboa), ordea, bakoitza zorraren osotasuna betetzera behartuta egon daiteke, horrela eskatzen bada kontrako alderdiak. Subjektu aniztasuna modu solidarioan antolatzen bada, erabat aukera ohikoa izaten da hartzekodun bat baino gehiago daudenean, onuragarriagoa delako berarentzat, ez bailuke zordun guztien atzetik kreditua betetzea galdatzen joan beharko<sup>33</sup>.

---

<sup>32</sup> RAMON CHORNET, Juan Carlos: *Código Civil comentado*, zita, 302-306 orrialdeak.

<sup>33</sup> DIÉZ-PICAZO, Luis: *Instituciones de Derecho Civil*, 2. argitalpena, 1. liburukia, Tecnos, Madril, 1998, 96-101 orrialdeak.

## II. SOLIDARITATEA

### 1. Kreditu eta zor solidarioen kontzeptua eta Kode Zibilaren 1137. artikuluaaren interpretazioa: Auzitegi Gorenaren esku-hartze zuzentzailea

Kode Zibilaren 1137. artikulua oinarri gisa hartzen da ezartzeko zein araubide juridikoa den aplikagarria subjektu aniztasuna topatzean prestazio berean. Gure Kode Zibilak *favor debitoris* (zordunaren alde) printzipioa jarraitzen du erregela orokor gisa zatigarritasuna aukeratzen baitu. Horrela berresten du arauak hitzez hitz "*ez dakar hartzekodun horietatik bakoitzak dituen gauza guztiak eskatzeko eskubidea izatea, ezta zordun bakoitzak gauzak osorik eman behar izatea ere*". Horregatik, printzipioz prestazio zatigarri batean subjektu anitz daudenean, prestazioaren zatiketa erabakiko da (mankomunitatea)<sup>34</sup>. Hala ere, Auzitegi Gorenak solidaritatearen aldeko interpretazio arauak aldarrikatu ditu hartzekodun jakin batzuei babes bermatzeko. Solidaritatean honela arautzen da subjektuen aniztasuna: kreditu solidarioak edozein hartzekodunak zor osoa eskatzeko duen ahalmen osoa dakar, eta, aldi berean, zor solidarioak edozein zordun prestazio osoa betetzera behartuta geratzea eragiten du. Solidaritateak babes esleitzen dio erosotasunez hartzekodunari zordun baten kaudimengabezia sortzerakoan; izan ere, zordun kaudimendunaren aurka jotzeko aukera ematen dio, gainerakoei egoera horrek eragin diezaiekeena saihestuz. Legearen arabera, zordunak dira beren kideen kaudimengabezia jasan behar dutenak, ez hartzekodunak (KZaren 1145. art). Horrek agerian uzten du solidaritatea bide bat dela hartzekodunarentzat modu uniforme eta lineal batean ordainketa eskatu ahal izateko; eta aldi berean, ez du suposatzen gainerakoei erreklamatu beharreko eragozpenak edo gastuak ordaindu edo jasan behar dituenik. Pixkanaka, aurreratu dugun bezala, Auzitegi Gorenak zuzendu egin du urteen poderioz artikulua horren interpretazioa, eta solidaritatearen aldeko arau berriak ezarri ditu egoera konkretuetan aplikatzeko. Kasu konkretu hauetan, solidaritatea Auzitegiak hartutako neurri bat da garapenaren poderioz, kaltetuak bere zordunen aurrean duen eskubidea bermatzeko. Honen arrazoia hartzekodunek batzuetan babes berezia merezi izatea da kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutelako, adibidez KZaren 1902. edo 1591. artikuluek adierazten duten bezala. Hainbat etapa izan dira bilakaera hori lortzeko, eta, azkenean, Auzitegi Gorenak artikuluaaren interpretazio zuzentzailea egin du.

---

<sup>34</sup> PARRA LUCÁN, María Ángeles: *Teoría general de la obligación y el contrato. La interpretación correctora del artículo 1137*, 4. argitalpena, Edisofer, 2016, 121-123 orrialdeak.

Kontratzko betebeharrei dagokienez, jurisprudenzia ezarri dituen ñabardura hauek aipatu behar dira:

*a) Kontratzko betebeharrak:* Lehenik eta behin, ikusi dugun bezala 1137. artikulua solidaritatea aurreikusten du soilik obligazioak espresuki zehazten duenean. Hitzek hitzeko interpretazio horretatik abiatuta, beharrezkoa litzateke "solidaritatea" hitza erabiltzea negozio juridikoan. Hala ere, Auzitegi Gorenak zabaldu egin du ikuspegi hori; izan ere, bere aburuz, nahikoa izango dira alderdiek solidaritatearen arauak aplikatzeko duten borondatea agerian uztea; hau da, ez da beharrezkoa hitza berariaz erabiltzea, baizik eta prestazioa osorik emateko edo eskatu ahal izateko borondate soilak balioko luke. Irizpide berri horretatik abiatuta, alderdien isilbidezko borondatea nabarmentzen joan da. Zehazki, Auzitegiak hainbat sententzietan kontratuaren testuingurua, egoera, jokabidea edo inguruabarrak kontuan eduki ditu alderdien asmoa ondorioztatzeko eta, horrela, solidaritatea ezartzeko. Amaitzeko, irizpide horretatik abiatuz, Auzitegi Gorenak finkatu du inguruabar jakin batzuek berekin dakartela solidaritatea aplikatzea; hala nola, negozio baten jabekide diren zordunak, jarduera profesionalaren kogestioa<sup>35</sup>, prestazioen helburuaren identitatea<sup>36</sup> edo helburuen komunitate juridikoa<sup>37</sup>. Egoera objektibo horiek obligazioaren izaerari eragiten diote, eta, horregatik, ebazpen judizial batek solidaritatea ezar dezake, nahiz eta alderdiek horri buruz ezer hitzartu. Argi ulertzeko, esaterako, negozio komun bat izatea nahikoa izan daiteke ondorioztatzeko haietako edozeinek bere gain hartutako zorrak, negozio osoari eragitean, izaera solidarioa izango duela beti. Horrela zehazten du AGk 278/2003 ebazpenean: *Entitate bakoitzak bi kontratu desberdin egin badute ere (bata salerosketa eta bestea zerbitzuen errentamendukoa), biak dira hirugarrenari eragindako kalte bidegabearen*

---

<sup>35</sup> 278/2003ko AGren sententzia, martxoaren 20koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6be09003427341c1/20030428>

<sup>36</sup> 404/2004ko AGren sententzia, maiatzaren 25koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4952226182529a6e/20040618>

<sup>37</sup> 784/2005ko AGren sententzia, urriaren 28koa: *Isilbidezko solidaritatea dago, kontratatzaileek emaitza bateratu bat nahi zutelako eta haien artean helburuen komunitate juridiko bat dagoelako.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5cfd243d26bf8ad5/20051117>

*errudunak eta erantzuleak eta solidarioki erantzun behar dute. Isilbidezko solidaritatea beren jarduera profesionalaren eta haiek itundu zutenaren arteko kogestioaren ondorio da.*

Bestalde, kontratuz kanpoko betebeharrak dagokienez, hurrengo zuzenketak daude:

**b) Kontratuz kanpoko betebeharrak:** Arlo honetan, AGk solidaritatearen aldeko irizpidea landu du ere. Aurretik aipatutako artikulua (KZaren 1591. art) adibidetzat hartuta, Auzitegi Gorenak solidaritatea aldarrikatzen du kalte kasuetan, errua edo arduragabekeria dela eta, bakoitzaren erantzukizunak indibidualizatu ezin direnean<sup>38</sup>. Era berean, kobratzea edo aberastea modu bidegabean ere erantzukizun solidarioaren objektu izango dira<sup>39</sup>. Horrela azaltzen du AGk bere sententzian: *Solidaritate inpropioak interes soziala babesteko tresna da, kaltetuak babesteko bitarteko bat baita. Hala ere, aplikatu ahal izateko, hainbat eragilek parte hartu behar dute, eta bakoitzaren erantzukizunak bereizezintasuna eraman behar du; hau da, ez da posible izango, bere jarduketengatik, erantzukizun egozgarriak banaka eta pertsonalki zehaztea.*

Laburbiltzeko, jurisprudenziatik 1137. eta 1138. artikuluen interpretazio zuzentzailea egin da solidaritatearen aldekoa, alderdien borondatearen bidez (esanbidezkoa edo isilbidezkoa) eta legalaren bidez, egoera objektibotik eratortzen denean. Horregatik, esan dezakegu ez dela beharrezkoa berariaz zehaztea “solidaritate” hitza, Kode Zibilak kontrakoa esaten badu ere. Obligazio solidario orok bi aspektu ditu: kanpoko eta barnekoa. Kanpo-harremana esaten zaio alderdien artean dagoen harremanari: zor solidarioetan, hartzekodunaren eta zordunen arteko harremana, eta, era berean, kreditu solidarioetan, zordunaren eta hartzekodunen arteko harremana. Bestalde, barne-harremana esaten zaio zordunen edo hartzekodunen artean dagoen erlazioari; izan ere, zor solidarioaren kasuan, zordunkideen arteko erlazioari, edo, kreditu solidarioaren kasuan, hartzekodunen arteko erlazioari. Jarraian, harreman bakoitzak duen araubide juridikoa aztertuko dugu.

---

<sup>38</sup> 413/2004ko AGren ebazpena, maiatzaren 24koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/81554031eec6ad9e/20040618>

<sup>39</sup> 166/1988ko AGren ebazpena, martxoaren 4koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/61ca7ded96aa9616/19960109>

## 2. Kanpo-harremana

Kanpo-harremanetan nolabaiteko batasuna eta berdintasuna dago subjektuen artean. Hasteko, solidaritatearen oinarritzko ezaugarria prestazioa osorik esleitzea da subjektu bakoitzari. Hala berretsi egin du AGk, zor solidarioei dagokienez: *Kanpo-harremanari dagokionez, zordun bakoitza bakarra eta eskusiboa da, guztiak behartuta, zordun solidario bakoitzak oso-osorik eman behar baititu betebeharraren xede diren gauzak, betebehar hori izaera solidarioarekin eratu denean*<sup>40</sup>. Horrek esan nahi du obligaziodun bakoitza osorik zorduntzat hartzen dela (solidaritate pasiboa), edo kredituaren titular bakoitza bere osotasunean hartzekoduntzat hartzen dela (solidaritate aktiboa).<sup>41</sup> Zordun edo hartzekodun solidario bakoitzari egindako esleipen oso horren ondorioa da hartzekodunak duen ahalmen juridikoa edozein zordunari prestazioa betetzea erreklamatzeko. Solidaritate aktiboan, hartzekodunak beraren izenean eta hartzekodun guztien interesean egikaritzen du kreditu-eskubidea zordunaren aurka; ordea, solidaritate pasiboan, zordun bakoitzak dauka oso-osorik prestazioa betetzeko obligazioa. Logikoa denez, horrek esan nahi du subjektu solidario bakoitza gai dela obligazioa iraungitzeko egintzak burutzeko eta besteengan efektu juridikoak izango ditu. Bestalde, hartzekodunen batek zorra kobratzen badu edo betebeharra azkentzen badu, gainerako hartzekodunei euri dagokien betebehar zatia ordaindu behar die (1143. art); era berean, ordainketa egin duen zordunak, beste zordunkideei zegokien zatian erreklamatu diezaieke (1145. art). Garrantzi kolektiboa dugu gure aurrean; izan ere, batek egindako egintzek besteengan eragiten dute juridikoki. Esaterako, zordun batek egindako ordainketak obligazioa iraungitzen du eta, era berean, gainerakoetan ondorio askatzaileak sortzen ditu<sup>42</sup>. Araubide juridikoari dagokionez, 1144. artikulua aplikagarria da zeren eta hartzekodunak askatasunez erabaki baitezake noren aurka joko duen prestazioa erreklamatzera; hortaz, baten aurka edo guztien aurka joan daiteke aldi berean. Hau dela eta, guztia ordaintzeko aukeratu den zorduna bat izanda, honek ezin izango du aldarrikatu *beneficium divisionis* delakoa, eta ezin izango du bere kuota soilik

---

<sup>40</sup> 1977ko irailaren 28ko AGaren sententzia.

<sup>41</sup> VALPUESTA FERNANDEZ, María Rosario: Betebehar eta Kontratuei... zita., 34. orrialdea.

<sup>42</sup> KZaren 1145. art: *Hartzekodunak jo dezake zordun solidarioetatik edozeinen aurka edo horien guztien aurka aldi berean. Zordun baten aurka jarritako erreklamazioak ez dira oztopo izango geroago gainerako zordunen aurka jarritako erreklamazioetan, zorra oso-osorik kobratzen ez den bitartean.*

ordaindu, ezta gainerako zordunkideei demanda jartzeko eskatu ere. Alde batetik, zorra solidarioa izanda, hartzekodunak *ius electionis* eskubidearen titularrak dira, erreklamazioaren hartzailea askatasunez aukeratzea ahalbidetzen duen eskubidea da. Honen bidez, zordun baten aurka erreklamazioa egikaritu ondoren, beste baten kontra jo dezake berriz *ius variandi*-ari esker; hala ere, aurreko erreklamazioaren hartzaile ez direnen aurka egikaritu behar du. Eta aldi berean, *ius variandi*-a bideragarria izango da zorra ordaintzen ez den bitartean; izan ere, 1144. artikulua obligazioa azkentzea aitortzen du batek egindako ordainketaren ondorioz. Bestalde, kreditu solidario kasuan, 1142. artikulua ahalmena ematen dio zordunari edozein hartzekodunari ordainketa osoa egiteko. Hala ere, horietako batek zorra erreklamatzeko demanda aurkezten badu, berari egin beharko dio ordainketa.

Amaitzeko, komenigarria deritzot KZean egondako kontraesana ikusgai jartzea. 1143. eta 1141<sup>43</sup>. artikulua ez dira elkarrekin koordinatzen, anbiguotasuna sortuz; izan ere, hartzekodunari buruz ari da, ezin baititu gainerakoentzat kaltegarriak diren egintzak gauzatu; baina, zorra azkentzen duten berritzeak, konpentsatzeak, bateratzeak edo barkatzeak egin ditzake. 1143. artikulua solidaritatearen ikuskera erromanistari erantzuten dio, haren figura errespetatuz; 1441. artikulua, berriz, solidaritatearen kanpoko printzipio desberdinak txertatzen ditu. Hori dela eta, hartzekodun bakoitzaren osoko ahalmena onartzen da kreditua xedatzeko, aldatzeko edo azkentzeko egintzek, zordunaren eta hartzekodunen aurrean eraginkortasun osoa edukiz. Baina, ondorioz, hartzekodunak gainerakoei ordaindu behar die zegokien kreditua; horrela, hartzekodunaren egintzek ez diete kalterik egingo gainerakoei<sup>44</sup>.

---

<sup>43</sup> “Hartzekodun solidario bakoitzak egin dezake gainerakoentzat onuragarria dena, baina ez haientzat kaltegarria dena”

<sup>44</sup> LEÓN ALONSO, Jose Ricardo: *La categoría de la obligación in solidum*, 35. liburukia, Universidad de Sevilla, 1978, 15-22 orrialdeak.

### 3. Barne-harremana

Kode Zibilak 1146. eta 1145. artikuluetan jasotzen ditu ager daitezken ondorioak zorra iraungitzean. Edozein subjektu solidariok obligazioaren iraungipena dakarren egintza bat burutzean, barne harremanetan kontuak egitea beharrezkoa da subjektu interesatu artean kreditua edo zorra berdintzeko. Barne kontuen garbiketa egiten da itzulpen-eskubidearen bidez (*acción o derecho de regreso*), titular interesatuek egikarrituta. Eskubidearen titularra ordainketa burutu duen pertsona izango da eta gainerako zordun solidarioen aurka jo dezake prestazioa birbanatzeko. Eskubide bera du hartzekodun solidarioak prestazioa osorik kobratu duen hartzekodunaren aurrean<sup>45</sup>. Ikusten dugun bezala, barneko harremanek garrantzia hartzen dute obligazioa iraungitzen denean ordainketa egiterakoan eta ez lehenago. Halaber, barne harremanen araubide juridikoa aplikagarria izango da horrela eskatzen badu egoerak; hau da, zorraren edo kredituaren geroko nibelazioa egitea beharrezkoa denean. Hartzekodun solidarioen (solidaritate aktiboa) kasuan, kreditua kobratu zuenak dagokion zatia ordaindu behar die gainerako hartzekodunei. Beste hartzekodunei itzulpen-eskubidea esleitzen zaie, eta eskubide hori eskubide berria da, dagokion kuotari esker sortua. Kuotak erdibana direla uste da (1138. artikulua), baina haien artean dauden negozio juridikoez (barne-harremanak) zehaztuko dute errealitateari dagokion kuota zehatza<sup>46</sup>. Zordun solidarioen kasuan (solidaritate pasiboa), zorra ordaindu zuen zordunak itzultzeko eskubidea du gainerako zordunen aurrean, gehiegi ordaindu zuena berreskuratzeko. Horrela finkatzen du 1145. artikulua, zordunak erreklamatzeko eskubidea baitu bakoitzari dagokion zatia aurrerapen interesak batuta. Gerta daiteke zordun bat kaudimengabezia egotea, eta kasu honetan bere likidezia falta besteek estaliko dute. Hau da, kaudimengabezia-arriskua gainerakoek hartzen dute beren gain barne-harremanean, eta ez soilik ordaindu zuen zordunkideak<sup>47</sup>. Aldi berean, kreditu solidarioen kasuan, zorra jaso duen hartzekoduna arduraduna izango da gainerakoen aurrean dagokien zatiari erantzuteko. Hau gauzatzeko, lehenik eta behin, itzultzeko eskubidearen

---

<sup>45</sup> KZaren 1143. art: “*Halako egintzetatik edozein gauzatu edo zorra kobratzen duen hartzekodunak erantzukizuna izango du gainerako hartzekodunei begira, horiei betebeharrean dagokien zatian*”

<sup>46</sup> MARÍN LÓPEZ, Manuel Jesús: *Lecciones de Derecho Civil*, 3. argitalpena, Tecnos, Madril, 2017, 224-227. orrialdeak.

<sup>47</sup> BLASCO GASCÓ, Francisco de Paula: “*Obligaciones y Contratos*”, 3. argitalpena, Tirant Lo Blanch, Balentzia, 1998, 85-95. orrialdeak.

arabera eskatu daitekeen *quantum*-a zehaztu behar da, hau da, bakoitzak duen kuota bere barne-harremanean finkatuta dagoenaren arabera. Barne harremanetan, prestazioaren zatiketa berdintasunez presumitzen da eta hortaz, subjektu bakoitza kuota berdinen titularra da baina kontrako froga onartzen du. *Iuris tantum* presuntzioa da<sup>48</sup>, kuota horren irismena egiaztatzea behar delako bakoitzari dagokion proportzio zehatza frogatzeko.

Horrek esan nahi du bakoitzaren proportzio zehatza frogatzea ezinezkoa denean, kuota berdinen arabeko zatiketa egingo dela. Titular bakoitzaren kuota finkatu ondoren, batek dagokiona baino gehiago jasotzen badu, gainerakoei dagokiena itzuli behar dio; hortaz, gehien jasotzen duen hartzekoduna gainerako hartzekodunekiko zordun bihurtuko da.

### **III. ERANTZUKIZUN SOLIDARIO AKTIBOA ZEHAZTUGABEKO BANKU KONTUETAN**

#### **1. Sarrera**

Puntu honetatik aurrera, titular ugari dituen banku-kontuetan soilik jarriko diogu arreta, lan honen epizentroa baita. Ezkontzaren ohiko praktika da, baita ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteena ere. Kontu korrante bat irekitzen da bi ezkontide edo bizikideen izenean eta bertan, titular gisa agertzen dira biak. Kontu hauen izaera ulertu ahal izateko, horiei buruzko azalpen bat egitea beharrezkoa da. Bi motatako kontu korrante daude titular bat baino gehiago daudenean, ezarritako xedapen-erregimenaren arabera: *kontu bereizigabea edo solidarioa* eta *kontu mankomunatua edo kontu bateratua*. Alde batetik, kontu mankomunatuaren bidez, titularrek gainerakoaren adostasuna behar dute kontuaren funtsak edo dirua xedatzeko, itzulketak egiteko edo saldoa murrizten duten eragiketak egiteko. Kasu horretan, kreditu-erakundeek (banketxeak) zaindu egin behar dute funtsen xedapenik ez gertatzea, beharrezko titularren baimenik jaso gabe. Aldiz, kontu solidarioetan titular bakoitzak askatasunez erabil ditzake funtsak gainerakoaren baimenik gabe; beraz, kreditu-erakundea behartuta dago bietako edozeinek emandako aginduak

---

<sup>48</sup> RODRIGEZ GUITIÁN, Alma María: “Pluralidad de acreedores y modernización del Derecho de obligaciones”, *Anuario de Derecho Civil*, 70. liburukia, 2. zenbakia, 2017, 397-471 orrialdeak.



betetzera<sup>49</sup>. Hasiera batean, kontu hauek *mortis causa* oinordetza modu erraz eta azkar batean burutzeko erabiltzen ziren; izan ere, funtsen titularra eta jabe bakarra hiltzean, bere oinordekoek automatikoki erretiratzen zituzten funtsak eurenak balira bezala, oinordetzaren zergak saihesteko. Kontu hauen neurrigabeko erabilera horren aurrean, legeek erreakzionatu zuten iruzur fiskalarekin amaitzeko. Azkenean, arrakasta erlatiboa lortu zen baina ez erabatekoa, orain ezin baita egiaztatu kontu mota horiek iruzur fiskala egiteko helbururik ez dutenik. Kasurako, Bartzelonako Probintzia-Auzitegiaren ebazpenean<sup>50</sup> ezkontideek zehaztugabeko kontua zuten baina senarra hiltzen da. Ondoren, emazteak “Caixabank”-i kontuaren funts guztiak bueltatzeko erreklamatzeko dio baina bankuak funtsen %50 blokeatu egin zituen zerga-araudia aplikatuz. Azkenean, emazteak auzitegitako helegitea desestimatu da hurrengoan oinarrituz: *Gordailuen titularra hil zen egunean, Luis Manuel jauna, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 29/87 Legea aplikagarria zen. Arau horrek finantza-bitartekariak behartzen ditu ondasunen titulartasuna aztertzea, efektu fiskalari buruz. Hala, demandatuak (Caixabank) kausatzailearekin zituen gordailu guztiak emateko ahal izateko, Candelaria andreak egiaztatu behar zuen gordailu horietan zeuden saldo guztien benetako titularra zela, edo oinordetza-zergaren likidazioa egiaztatu behar zuen. Emazteak, hemen apelatzailea bera, ez du egiaztatu inguruabar horietako bat ere gertatu denik, eta, beraz, bere uziak ezetsi direla berretsi behar da.*

Gaur egun, pertsonen konfiantzazko harremanean oinarrituta aukeratzen dute kontu korrante mota hau, ezkontzaren edo familia-unitatearen gastu komunak elkarrekin kudeatzeko helburuarekin. Funtsezkoa da kontuaren titularren arteko elkarrekiko konfiantza, eta titularrek egindako itunaren funtsezko aldea da *intuitu personae*<sup>51</sup> izatea. Horregatik, gerta daiteke ezkontideek ondasunen banaketa eraientza ekonomikoa mantentzea, baina banku kontu korrante mota hori irekitzea erabakitzea<sup>52</sup>. Bizkortasun handia eragiten dio dute kontu korrantearen erabilerari baina, aldi

---

<sup>49</sup> CUENA CASAS, Matilde: *Familia y concurso de acreedores*, 1. argitalpena, Civitas, 2010, 193-199. orrialdeak.

<sup>50</sup> Bartzelonako PAaren 458/2013ko Sententzia, urriaren 16koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fbe4aee6e75256dc/20131227>

<sup>51</sup> Pertsona bera eta bere ezaugarriak kontuan hartuta.

<sup>52</sup> *El problema que plantean las cuentas indistintas en la ley concursal*, 3-10 orrialdeak:

<https://www.legaltoday.com/files/File/pdfs/titularidad-indistinta.pdf>

berean, arrisku handiko operazioa da, ondoren ezkontza-krisia edo bikote-krisia sor baitaiteke. Une horretan agertzen dira auzi judizialak gordailututako funtsak ez galtzeko; izan ere, titularretako edozeinek kontua blokeatu edo funtsak atera ditzake berak daukan haserre edo mendeku nahiagatik; eta, hala ere, bankuak haiek emandako aginduak betetzen jarraitu behar du<sup>53</sup>. Ahaideen, hurbilekoen edo lotura afektiboak dituzten pertsonen arteko kontuak dira arazo gehienak dakartzatenak, liskarrak titularren artean gertatzen baitira, bankuarekin baino askoz gehiago. Aitzitik, mota honetako kontuak irekitzea beste arrazoi batzuegatik ere izan daiteke; esaterako, bazkideek edo administratzaileek elkarrekin duten negozio edo enpresa baten kudeaketa bateratua dela eta.

## **2. Barne-harremana: Titularren arteko lotura juridikoa**

Zehaztugabeko banku kontuetan ardaztuz, kontu solidarioetan, titularretako edozeinek eskura ditzake funtsak, besteen sinadurarik gabe eta diru horren benetako jabea nor den alde batera utzita. Horrez gain, argi geratu behar da kontu korrontea norbaiten izenean egoteak ez dakarrela berekin, zuzenean eta automatikoki, funtsen titulartasuna. AGren doktrinak horrela azaldu zuen 1991ko otsailaren 8ko epaian, hain zuzen ere<sup>54</sup>: *Bankuko zehaztugabeko kontu korronte bat (kontu korronte solidarioa), bi edo pertsona gehiagoren izenean irekitze hutsak, arau orokor gisa, berekin dakarren gauza bakarra da, kontu korronte horren saldoa xedatzeko ahalmena izango duela banketxearen aurrean, baina ez duela berez zehazten saldo horren gaineko jabeakidetzeta, eta gutxiago zati berdinetan, hori soilik bi titularren arteko barne-harremanak edo funtsen jatorrizko jabetzak zehaztu behar dutelako*. Epai honek ebazten duen gatazka juridikoan, zehazki, bi ezkontideek mota honetako kontua dute, senarra hiltzen da eta, aldi berean, bere oinordetza irekitzen da. Oinordeko bakarra dago, bere alaba, eta kontu horren funtsa osoa erreklamatzeko dio emazteari saldoaren jatorria bere aitaren enpresaren etekinetan dagoelako. Egitate horretan oinarritzen da Auzitegia kontu korrontearen funtsa osoaren jabetza alabari aitortzeko. Izan ere, funtsaren jabea aita zen, kausatzailea, eta ez bere emaztea, nahiz eta kontu korrontearen titular izan

---

<sup>53</sup> CUENA CASAS, Matilde: “Cuentas indistintas, crisis matrimonial y prácticas bancarias”, *Hay Derecho.com*, 2012. <https://www.porticolegal.com/articulos/402.pdf>

<sup>54</sup> AGren 13198/1991ko sententzia, otsailaren 8koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/07773222a3efe7a0/19960106>

bera ere. Bi plano bereizten dira, hortaz: kontu korrontearen titular gisa banketxearen aurrean agertzen direnak, zehaztugabeko kontu korronteetan; eta, bestalde, kontu horretan dagoen funtsaren titulartasuna dutena edo dutenak, ez dutela zertan berberak izan

Hori guztia dela eta, titularren arteko barne-harremanean, kontratutik sortutako xedapen-ahalmenek ez diete eragiten gordailututako aktiboen gaineko jabetza-eskubideei<sup>55</sup>. Titular izateak ez du gordailututako funtsen gaineko jabetza-eskubiderik ekartzen, baizik eta horien benetako jatorria frogatu beharko da titularkideek duten barne-harremanaren arabera. Horrenbestez, jabekidetzaren *iuris tantum* presuntzioa dago, eta hori indargabetu egin daiteke haien funtsen jabetza propioa frogatuz. Frogak egokiak ez badira, kuota berdinen arabeko legezko presuntzioa aplikatu beharko da (1138. art.)<sup>56</sup>. Horregatik, Auzitegiak jabekidetzaren presuntziotik abiatzen dira, eta hori indargabetu egin dezakete alderdiek funtsen jabetza egiaztatzen duten frogen bidez. Esate baterako, Lleidako Probintzia-Auzitegiaren 1994ko maiatzaren 25eko sententzia: *banku-gordailu baten titular bat baino gehiago egotea operatiboa da kontratuaren dinamikarako, baina ez du ezartzen jabekidetasun bat dagoenik, titularren barne-harremanek finkatzen baitute. Beraz, kapitala esleitzeko, kontuan hartu beharko da apelatzaileak funtsen jabetzari buruz aurkeztutako froga*. Bestalde, Malagako PAren ebazpenean<sup>57</sup> bikote baten krisiaren baten ondorioz sortutako auzia epaitzen da. Sabinok prozedura arrunteko demanda aurkeztu zuen Beatriz andrearen aurka, berarekin harreman sentimentala izan zuela alegatuz. 2014an, Sabino jaunak 92.000 euroko gordailu-kontratua sinatu zuen bankuan, eta, ondoren, Beatriz, titular solidario gisa izendatu zuen. Harreman sentimentala amaituta, ezin izan zituen gordailuaren funtsak eskuratu, demandatuak (Beatriz) burofax bat bidali baitzion bankuari, kontua blokeatzeko eta xedapen solidarioaren forma mankomunatura aldatzeko eskatuz. Beatriz alegatutakoaren arabera, ez dago jasota inolako diru-sarrerarik egin zuenik bere lan pertsonalagatik, jaso zezakeen pentsioagatik edo banku-kontu propioetatik ateratako kopuruengatik. Ordea, Sabinok aurkeztutako dokumentuek egiaztatzen

---

<sup>55</sup> MUÑOZ PLANAS, José: “Titularidad y propiedad en las cuentas bancarias indistintas”, *Revista de derecho bancario y bursátil*, 12. liburukia, 45. zenbakia, 1992, 7-33 orrialdeak.

<sup>56</sup> *Zenbat hartzekodun edo zordun izan eta kreditu edo zorra beste horrenbeste zatitan banatu dela uste izango da*

<sup>57</sup> 475/2018ko sententzia, uztailaren 20koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2db86cb37603cc35/20190207>

dutena da gordailu horretan egindako diru-sarrerak bere lan pertsonaletik edo bere ondaretik zetoze. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, *onartezina da kontu korrontean gordailututako dirua pertsona baten jabetzakoa izatea titular solidario gisa agertzeagatik*; beraz, Beatriz ez da funts horien jabea.

### **3. Kanpo harremana: Titularrek banketxearekiko duten lotura juridikoa**

#### ***3.1. Aldeen posizio juridikoak***

Zehaztugabeko banku kontu oro bankuaren eta bezeroen arteko banku-kontratu batetik sortzen da, bezeroak kontuaren titularrak izanez. Gainera, zehaztugabeko kontua izatea bezeroek formalizatutako kontratuan berariaz egindako itun baten ondorioa da. Banku-dokumentu guztiek (kontua irekitzeko eta/edo kontratua formalizatzeko agiriak) funtsak xedatzeko moduari buruzko klausula bat dute, bezeroek bere borondatea islatu dezaten. Kontu horien izaera kontuan hartuta, ezinezkoa da bankuak dokumentuetan horren aipamenik ez egitea edo gaia ez heltzea, hasieratik eragina duelako kontuaren funtzionamenduan. Bezeroen akordiorik ezean, bankuek erabaki hori prebenitzen ohi dute araubidea ezartzeko klausuletan ; beraz, kontuaren izaera titularrek sinatutako agirietan (kontratua formalizatzen duena) aurkituko dugu. Dena den, isiltasun absolutua gertatzen bada bankuaren eta bezeroen aldetik, mankomunatutzat hartu behar da kontua, 1137. artikulua aplikatuz. Horrenbestez, banku kontua solidarioa izanda formalizatutako kontratuaren arabera, titularrei ahalmen xedatzaileak esleitzen zaizkie bankuaren aurrean, eta banketxeak ez du titularrak funts horien jabe diren egiaztatzeke betebeharririk<sup>58</sup>.

Lehen esandakoarekin lotuz, mota honetako kontuek solidaritate aktiboaren bidez funtzionatzen dute. Hartzekodun solidarioak (titular bakoitzak) prestazioa osoa edo partziala eskatzeko ahalmena du bankuaren aurrean, zorduna dena. Era berean, zordunak (bankua) edozein titularrari prestazioa bete diezaioke loteslea eta eraginkorra izanez besteen aurrean. Bakoitzari xedapenak burutzeko edo prestazioa kitatzeko ahalmenak emateak, bakoitzak bere kreditu-eskubidea propioa duela pentsarazten du. Hala ere, hartzekodun bakoitzaren eskubideak ez dira elkarren artean

---

<sup>58</sup> MUÑOZ PLANAS, José María: *Instituciones del mercado financiero*, 2. liburukia, BSCH, Madril, 1999, 427-447 orrialdeak.

independenteak, elkarren arteko mendekotasuna baitago, eta horrek muga handiak sortzen ditu aurrerago azalduko direnak. Bestalde, argitzekoa eta sakontzekoa da kontratuzko harreman horren posizio juridikoak, bankuarena zein titularrarena, solidaritate aktiboko egoeratik harago doaz eta. Bankua ez da ohiko zorduna eta aldi berean, titularrak ez dira ohiko hartzekodunak edozein obligazioan aurkitu ditzakegunak. Zordun arruntak askatasunez erabaki dezake zein hartzekodun solidarioari ordainduko dion zorra 1142. artikuluari esker. Aldiz, bankuak ezin du "*motu propioa*"<sup>59</sup> ordaindu, baizik eta bere bezeroengandik jasotzen dituen aginduei erantzun behar dizkio. Bankuak ez dauka ekimen hori eta ezin du bere erabakiz zorretik askatu<sup>60</sup>. Modu honetan, kontu horretan eragiketak egiteko inizatibak titularren ezaugarri eskusiboa da, mandatariak direnak. Beste aldetik, ohiko zordunaren interes oro zorra ordaintzea da bere iraungipena lortzeko. Hala ere, bankuaren nahia ez da zorretik askatzea edo ordaintzea, funtsak berriro itzultzea baizik. Ez du inoiz dirua itzultzeko interesik izango (aske geratzea, zordun arruntak bezala), ahalik eta denbora gehien gorde nahi dituelako. Gordailuen bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errentagarritasun handiagoa izango dituzte inbertsioek, bankuen interesa hori delako. Kreditu solidario arruntarekin dagoen beste desberdintasuna bere izaeran dago. Zordunari ezin zaio obligazioaren zenbatekoa handitu edo aldatu, defentsa-gabezia aurkituko delako. Ordea, bankuarekin existitzen den prestazioa ez da zehatza edo iraungaitza, kontuaren mugimenduaren arabera etengabe aldatzen delako. Amaitzeko, bankuak zor duen edukiari erreparatzen badiogu nabarmentzen da bere berezitasuna. Bankuaren obligazioa ez da ordainketa betetzera mugatzen, baizik eta kontu korrante ororen berezko "*kutxa-zerbitzua*"<sup>61</sup> osatzen duten prestazio askotara hedatzen da, mota guztietako banku-eragiketak egiten baititu. Argudio hauek guztiak oinarri hartuta, egile asko ez daude ados solidaritate aktiboaren aplikazioarekin kontu mota hauetan, haientzat solidaritatearen erregimen juridikoa ez baita bateragarria kontu hauen xedearekin. Hau da, zehaztugabeko kontu korranteak gainezkatzen du solidaritatearen eremua bere edukia eta

---

<sup>59</sup> Borondatez, nahita.

<sup>60</sup> ASSAMA RAFI, Mónica: "Problemática en torno a las cuentas bancarias indistintas", *Contratación bancaria*, 1998, 313-328. orrialdeak.

<sup>61</sup> Titularren onurarako egin beharreko jarduera ugari sartzen dira, funtsak zaintzeko edo saldoa itzultzeko jarduera soila baino askoz ere gehiago egiten dutenak.

berezitasunak direla eta. Esaterako, FERRANDO VILLALBA<sup>62</sup> autorearen iritziz “solidaritate aktiboa, Kode Zibilean deskribatzen den bezala, ez dirudi erakunde egokiegia denik kontu hauen kontratu-edukiari dagokionez”.

### **3.2. Banku-kontu bereizigabearen izaera juridikoa eta azterketa**

Erdi Aroan, XII. mendean zehazki, merkataritza-zuzenbidea sortu zen, merkatariek hiriguneetara lekualdatu eta feudalismoa atzean utzi zutelako gremioetan antolatzeko. Merkataritza-egintzak arautzeko beharrak legeria berria ekarri zuen, gaur egun ezinbestekoa dena. Gure Merkataritza Kodea 1885ekoa da, eta 1. artikuluan merkataria definitzen du merkataritza-zuzenbidea aplikatzen baitzaie merkatariori: “*Son comerciantes para los efectos de este Código: 1. Los que, teniendo capacidad legal para ejercer el comercio, se dedican a él habitualmente*”. Ildo honetan, antzinatik bankariaren lanbidea merkatoriarenarekin parekatu ahal izan zen; honen arrazoia gaur egun indargabetuta dagoen abenduaren 31ko 1946ko Banku-antolamenduaren Legearen 37. artikuluan dago, horrela zioena: “*Ejercen el comercio de Banca las personas naturales o jurídicas que, con habitualidad y ánimo de lucro, reciben del público, en forma de depósito irregular o en otras análogas, fondos que aplican por cuenta propia a operaciones activas de crédito y a otras inversiones, con arreglo a las Leyes y a los usos mercantiles, prestando, además, por regla general, a su clientela servicios de giro, transferencia, custodia, mediación y otros en relación con los anteriores, propios de la comisión mercantil*”<sup>63</sup>. Horregatik, Merkataritza Zuzenbidea eta Banku Zuzenbidea, Zuzenbide zibila modu berezian, espezializatuan, baliatzearen ondorioz sortu dira. Konkretuki, Banku Zuzenbideak kreditu-erakundeak eta haien jarduera ekonomikoa eraentzen dituzten arauak jasotzen ditu. Aztertuko dugun kontratua, izatez, merkataritza-kontratuen espezialitate gisa eratzen da; beraz, banku-kontratu oro merkataritza-kontratu bat da. Hobeto ulertzeko, KZaren 1254. artikulua honela definitzen du kontratuzko harremana: *zerbait emateko, egiteko edo ez egiteko obligazioa* (eta berau galdatzeko eskubidea) barnebiltzen duen

---

<sup>62</sup> FERRANDO VILLALBA, M<sup>a</sup> de Lourdes: *Titularidad indistinta de cuentas bancarias*, Tecnos, Madril, 1998, 16-22 orrialdeak.

<sup>63</sup> NÚÑEZ-LAGOS, Francisco: *Contratos bancarios*, Centro de Formación del Banco de España, Banco de España, Madril, 1996.

ituna, alegia. Eta gure kasuan, kreditua da ematen dena; horregatik, kreditua banku-kontratuaren ohiko objektua da<sup>64</sup>. Bankuak kredituaren bitartekariak dira eta horregatik, banku-kontratu bat zentzu hertsian formalizatu ahal izateko, banku batek parte hartu beharko du.

Kreditu-erakundeek egiten dituzten kontratuak merkataritzakoak dira; izan ere, banku-kontratuak Merkataritza Kodearen 311. artikulua aipatutako merkataritza-egintzak dira: “*Se reputará mercantil el préstamo concurriendo las circunstancias siguientes: 2. Si las cosas prestadas se destinaren a actos de comercio*”. Aldi berean, enpresa-kontratuak dira; hau da, banku-enpresak bere jardura ekonomikoa hirugarrenekin ustiatzeko baliatzen dituen negozio juridikoak. Alabaina, kontratu atipikoak dira Merkataritza Kodeak ez dituelako arautzen, baina legeria bereziren mende daude banku-kontratuen edukia erregulatzeko, aginduzko arauak direnak<sup>65</sup>. Kontratu mota honi ezarritako araudiak eragin berezia du kontsumitzailearen (edo kredituaren erabiltzailearen) babesari dagokionez, batez ere gardentasunari buruzko arauak, funtsezkoak direnak lehia eraginkorra izateko<sup>66</sup>. Gardentasun arau hauek bezeroekiko baldintzak ezartzen dituzte, eta baldintza horiek nahikoak izan behar dute kontratua sinatzearen aurreko informazio argia eta benetakoa bermatzeko, lehiaren besteen eskaintzekin bidezko konparazioa egin ahal izateko. Honelako erregulazioak izaera juridiko-administratiboa eduki arren, kreditu-agintaritzak hartzaile gisa eta Espainiako Bankua zigortzaile gisa funtzionatzeagatik, arau horiek kontratu pribatuari eragin diezaioke gardentasunari buruzko arauak haustean, kontratua baliorik gabe geratuz<sup>67</sup>. Lehen esan den bezala, kontratu pribatu hauek ez dute araudi propiorik; horregatik, alderdien autonomia baliatuta, hauek itunean zer ezarri duten begiratu behar da (KZaren 1255. art)<sup>68</sup>. Halaber, errealitateak erakusten digu alderdien borondatea ez dela nabarmentzen kontratu

---

<sup>64</sup> BELTRÁN ALANCETE, Teresa: *Aspectos jurídicos de los Contratos atípicos*, Bosch Editor, Bartzelona, 1994, 467-469. orrialdeak.

<sup>65</sup> 10/2014 Legea, ekainaren 26koa, kreditu-erakundearen ordenazioa, gainbeheraketa eta kaudimengabeziari buruz.

<sup>66</sup> MARTÍNEZ SANZ, Fernando: *Manual de Derecho Mercantil*, 20. argitalpena, 2. liburukia, Tecnos, Madril, 2013, 248-256. orrialdeak.

<sup>67</sup> Auzitegi Gorenaren 2013ko maiatzaren 9ko epaia, banku-maileguetako gehiegizko zoru-klausulak (RJ 1916/2013): <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/570e169140ea0a5f/20130510>

<sup>68</sup> GARRIGUES, Joaquin: *Contratos bancarios*, zita, 25. orrialdea.

hauetan; izan ere, praktikan finantza-erakunde handiek ezarritako baldintza orokorrak onartzean ala ez oinarritzen da kontratua<sup>69</sup>. Baina nahiz eta haiek erabaki klausulen edukia, errespetatu behar dute apirilaren 13ren 7/1998ko legea, kontratazioaren baldintza orokorreari buruzkoa<sup>70</sup>.

Banku-kontu hauek nola funtzionatzen duten hobeto ulertzeko, Kutxabank-en bulego batean eskuratutako banku-kontratua erabiliko dugu. Banketxearen langileak emandako zirriborroa da baina kontratu honek titularren eta banku-erakundearen arteko obligaziozko harremana arautzen duenez egokia izango zaigu eredu gisa aztertzeke. Kontu bereizigabe bat ireki nahi izanez gero, niri, 29 urte baino gutxiago ditudanez, Gazte Kontua dagokit, eskuragarritasun hori mantentzen duena. Titularraren sinaduraren ondorioz, onartutzat jotzen dira hemen jasotako klausulak, kontratazioaren baldintza orokortzat hartu behar direnak.

**gazte kontua**  
cuenta joven

RESIDENTES, EN EURO

kontu-zk. = nº de cuenta	bulegoa = oficina	erabilgarritasuna = disponibilidad
[REDACTED]	0037 ETXEBARRI	INDISTINTA ←

titularrak = titulares

izen-abizenak edo sozietatearen izena = nombre y apellidos o razón social	ifz = nif	e-mail helbidea = dirección e-mail	telefonoa = teléfono
ISABEL VILLAÑO LINAZA [REDACTED]	48450 ETXEBARRI BIZKAIA	[REDACTED]ro***@latinmail.com	94****151

<sup>69</sup> TAPIA HERMIDA, Alberto. Javier: “El concepto y clasificación de los contratos bancarios”, *La contratación bancaria*, Madril, 2007, 133. orrialdea.

<sup>70</sup> 7/1998ko Legearen 8.2 artikulua: *Bereziki, deusezak izango dira abusuzkoak diren baldintza orokorrak, kontratua kontsumitzaile batekin egin denean; halakotzat joko dira, betiere, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorraren 10 bis artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian definitutakoak.*



## Gainontzeko Baldintza Orokorrak

### 4. Finantza-erakunde kontratugilea

Kutxabank, S.A. bankua. IFZ: A95653077. Helbidea: Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo. Espainiako Bankuaren Finantza Erakundeen erregistroko zenbakia: 2095. Webgunea: www.kutxabank.com.

Bere jarduera Espainiako Bankuak ikuskatzen du (Alcala 48, 28014 Madril).

### 5. Titulartasuna

GAZTE KONTUA 18 eta 29 urte bitarteko (bi adinak barne) pertsona fisikoa den Titular baten edo gehiagoren izenean ireki daiteke.

Kontua hainbat titularren izenean irekiz gero, erabilera baterakoa (mankomunatua) ala solidarioa (bereizi gabea) izango den zehaztu behar izango dute.

Kontu solidarioetan (bereizi gabeetan), Titularretako bakoitzak kontuotako saldo osoa erabiltzeko ahala dauka, eta beraietako edozeinek sinatu ahal ditu eskudirua ateratzeko agiriak.

Baterako kontuetan (mankomunatueta), titular guztiek edo batzuek agindu behar dituzte diru-ateratzeak.

Fondoen erabilerari buruz ituntzen den beste edozein baldintza, kontratuan bertan agerrarazi beharko da, "baldintza bereziak" izenburuko atalean.

**Laugarren eta Bosgarren klausulak:** Aurretik adierazi dugun bezala, kontratuaren alderdietako bat beti izango da finantza-erakunde bat (gure kasuan Kutxabank), bere datuak dagokion klausulan ipiniz. Ikus dezakegunez, erakundearen izen osoa, identifikazio fiskalerako zenbakia, helbidea eta Espainiako Bankuaren Finantza Erakundeen Erregistroko zenbakia jasotzen dira aipatu klausulan. Banku-entitatearen webgunea ere ageri da, baita Espainiako Bankuak bere jarduna ikuskatzen duenaren aipamena, alegia. Bestalde, hurrengo klausulan azaltzen digu GAZTE KONTUAK erabilgarritasuna bereizigabea edo mankomunatua izan dezakeela eta eremu hau titularrek adostu beharko dutela, gainera. Adostu eta zehaztu. Segidan, klausulak berak azaltzen digu zertan datzan erabilgarritasun edo xedagarritasun mankomunatuaren eta solidarioaren arteko ezberdintasuna. Hala, bereizigabeko kontuetan, hots, solidarioetan, titular bakoitzak kontuotako saldo osoa erabiltzeko ahala dauka eta beraietako edozeinek sinatu ahalko ditu dirua ateratzeko agiriak. Aldiz, baterako kontuetan, hots, mankomunatueta, titular guztiek edo batzuek sinatu beharko dituzte eskudiru ateratzeak. Kudeaketa-kontratua da, saldoaren erabilerarako, eta, horren arabera, bankuak kutxaren zerbitzura lotutako eragiketak egingo ditu bezeroaren izenean. Titulartasunak bankuarekin kontratatutako kontu korrantea, produktua edo zerbitzua zein pertsonaren izenean

dagoen adierazten du. Edozein pertsona fisiko edo juridiko, organismo edo entitate izan daiteke harreman honen baitan eraturako kredituaren subjektua eta titularra<sup>71</sup>.

## 2. Komisioak

Kontratu honen xedea titularrak ekarritako fondoek kutxa-zerbitzua eskaintzea bada ere, Kutxabankek kontuan zordunduko dituzten kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera egotzi daitezkeen komisioak zein gastuak, baita kontratu mugagabea izateagatik, legean ezarritako moduan, etorkizunean egotzi daitezkeenak ere. Komisio edo gastu bakoitzerako beren beregi ezarritako datetan mugaeguneratu eta likidatuko dira. Egunik berariaz adierazi ez bada, interesen egun berean likidatuko dira komisioak eta gastuak.

## 3. Zorpeko espresua

Kutxabankek ez du zorpeko erabilerak onartzeko betebeharririk. Beraz, bere liburu eta erregistroen arabera Erakundearen alde azaltzen den saldoa berehala itzuli beharko dio Titularrak.

Zorpekoek, beti, Erakundearen aldeko interesak sortuko dituzte, kontratuan zehaztutako interes-tasan, eta kontuan bertan likidatu eta zordunduko dira, hori ere kontratu honetan adierazitako aldizkakotasunaz.

Horrez gain, zorpekoek kontratu honetan azaltzen diren komisioak eta gastuak ere sortuko dituzte Kutxabanken alde.

Kontratu honetan, interes, komisio eta gastuei buruz egindako aipamenek ez dituzte baztertzen 13. klausularen arabera geroago egin litezkeen aldaketak. Kutxabanken aurrean, Kontuaren titular guztiek solidartatezko erantzukizuna dute kontuan sor litezkeen zorpekoekiko, kontu mankomunatuetan izan ezik, horrelakoetan kontuaren izaeraren arabera erantzun beharko dute eta.

**Bigarren eta hirugarren klausulek** kontratuaren edukia ezartzen dute, titularraren aldeko kutxa-zerbitzua ematean datzana (ordainketak eta kobrantzak egitean biltzen duen banku-prestazioen multzoa, hurrengoak bilduta: hirugarrenen diru-sarrerak jasotzea, funtsak ateratzea, nominak, ordainketak, edo fakturak helbideratzea, txekak, kanbio-letrak...). Horrez gain, jasotako zerbitzuengatik komisioak ordaintzeko betebeharra sorrarazten dio bezeroari, indarrean dauden komisioen tarifen arabera. Gainera, kontratuaren iraupen mugagabea aipatzen du, ez baitu etenaldirik. Honi esker, kontratuak prebenitzen du etorkizunean komisioak sor daitezkeela kontuko zordunketak direla eta; bere epemuga eta likidazioa zehaztutako egunetan izango

<sup>71</sup> AGUILA-REAL, Alfaro: "Derecho bancario", *Revista Jurídica Universidad Autónoma De Madrid*, 2. liburukia, 2016, 275-281. orrialdeak.

direlarik. Horrez gain, kontu honetatik ordainketa bat egiten denean eta dirurik ez badu, sortutako zorra Kutxabank-en aldekoa izango da. Horrek esan nahi du titularrak, kasu honetan nik, mailegatutako saldoa automatikoki itzuli beharko diola Kutxabank-i, kontratuan ezarritako interes-tasarekin. Oso garrantzitsua da klausularen azken esaldia, hainbat titularren kasuan erantzukizuna ezartzen baitu eta haien artean gatazka sor baitaiteke.

Kontua bereizigabea bada, erantzukizuna solidarioa izango da Kutxabank-en aurrean, eta kontua mankomunatua bada, beren kontuaren izaerarekin bat erantzungo dute titularrek, hots, era bateratuan. Klausula gatazkatsua izan daiteke, titular solidarioak erantzun behar duelako berak sortu ez duen zorragatik<sup>72</sup>; izan ere, esate baterako, agian nire ezkontideak zenbait faktura helbideratu ditu kontu honetan eta nik ez dut horren berri izan. Ez balego honi buruzko klausularik kontratuan, bide judizialek jo genezake erantzukizuna gaineratik kentzeko kasu horretan, baina kontratuan klausula ezarriz gero, sinatutakoak eraginkortasuna izango du nire eremu juridikoan<sup>73</sup>. Horren harira, bezeroak erne egon beharko dira Kutxabank-ek burutu ditzakeen aldaketen aurrean. Izatez, 13. baldintza orokorraren arabera, interes-tasa, gastuak, komisioak eta kontratuaren baldintzak aldatu ditzake, bezeroari indarrean sartu baino bi hilabete lehenago jakinaraziz. Horren ondorioz, erantzukizuna erreklamatu diezaiokegu erakundeari bere jokabidea legez kontrako bada edo kalte bat sorrarazi badigu jakinarazpen falta dela eta.

---

<sup>72</sup> Espainiako Bankuaren webgunea:

<https://clientebancario.bde.es/f/webcb/RCL/PodemosAyudarte/InformesActividad/Estadisticas/descubierto.pdf>

<sup>73</sup> BBVA webgunea: <https://www.bbva.es/finanzas-vistazo/ef/cuentas/descubierto-en-cuenta.html>

## 6. Baimenak

Titularrek pertsona bat edo gehiago baimendu ahal dituzte, beraien izenean eta ordezkartzen eskudirua atera, kontuari buruzko informazioa jaso, kontua kitatu, edota gaur egun kontuarekin loturiko edozein eragiketa egiteko erabiltzen diren baliabideak eta etorkizunean gaitu daitezkeenak erabili ahal izateko, kutxazainak, telefono-zerbitzua eta Internet bidezkoa barne. Kutxabankek nortasuna frogatzea eskatu ahal izango dio diru-ateratzea eskatzen duenari.

Titularrei aintzatetsitako ahalmenak edo baimendutako pertsoneri esleitutakoak xedatu diren eran izango dira baliozkoak, Erakundeak ahalmen horiek aldatzeko, uko egiteko edo ezeztatzeako asmoaren jakinarazpen kautoa eta zalantza gabekoa jasotzen ez duen artean.

Kutxabankek ez du erantzukizunik onartuko, sinadurak edo ahalak baliogabetu, ahal-emailea hil, adin-nagusitasunera heldu, izen-abizenak aldatu, ezkontideen erregimen ekonomikoa edo egoera zibila aldatu edo kontua erabiltzeko ahalmenak aldarazten, mugatzen nahiz deuseztatzen dituen beste edozer gertatuta egindako eragiketen gainean, Erakundeak aurretiaz jazoera horren berri izan ez badu, nahiz eta gertaera aldarazleok agiri publikoan agertu edo Erregistro Publikoan inskribaturik egon.

## 7. Heriotza

Kontu bereizi gabeetan, titularren bat hilez gero, gainerako titularren ahalmenen izaera solidarioa ez da aldatuko. Beraz, bai bizirik dauden titularrek, bai hildako titularra ordeztzen duten jaraunsleek eskubide hori frogatu eta zerga-obligazioak bete ondoren gainerako titularren baimenaren beharrik gabe erabili ahal izango dute kontua.

## 8. Diru-sartzeak

Bezeroek eskudirutan, txeke bidez edo zuzenbidean onarturiko beste edozein abonua-era erabiliz sartu ahal izango dute dirua kontuan.

Sartutako zenbatekoak eskudiruzkoak ez direnean, amaiera onak baldintzaturik abonatu dira kontuan, eta ezin izango dira erabili ordaintzeko betebeharra duenaren adostasuna lortu arte.

**Seigarren klausulak** adierazten digu titularrak baimena eman diezaiokeela beste pertsona bati kontua erabiltzeko. Horrek esan nahi du ez dela beharrezkoa kontratuan bertan pertsona baimenduak aipatzea, baizik eta etorkizunean titularrak komenigarri deritzon beste pertsona bati izenda dezakeela. Hasieratik ere egin dezake, hala ere. Ikus daitekeenez, titularra izatea edo baimendua izatea ez da berdina. Kontuaren titulartasuna titularrak berak dauka, titularrek

bereizigabeko kontua izanik. Baimenduak, kontua erabiltzeko baimena dauka, titularra izan gabe. Ahalmen horrek aukera ematen dio pertsona baimenduari banku-eragiketak egiteko edo, besterik gabe, kontutik informazioa jaso ahal izateko. Hala ere, garrantzitsuena azken paragrafoa da, aldaketa horiek alde aurretik jakinaraztea ezinbestekotzat jotzen baitu. Baimen hori agiri publikoan jasota badago ere, Kutxabank-ek horren jakinarazpena aurretik jaso beharko du. Bestela, Kutxabank-ek ez du inolako erantzukizunik izango aldatutako ahalmen berrien bidez egindako eragiketen aurrean.

**Zazpigarren klausula** agian izango da lanaren gaiari dagokionez gehien interesatuko zaiguna, titularkide baten heriotza aurreikusten duelako. Lehenik eta behin, Kutxabank-ek ez du banku-kontuaren %50eko blokeatuko titular bat hil egitean, beste epai batzuetan adierazi den bezala; hala nola, Bartzelonako Probintzia-Auzitegiaren sententzian<sup>74</sup>.

“Secundino eta Alejandra irabazpidezko erregimenean ezkontuta zeuden eta “Caixabank”-en kontu korrante bereizigabea zuten. Secundino hil zenean, haren seme eta oinordeko Martzialak “Caixabank”-en aurkako %50ko atxikipen bidegabearen adierazpen demanda aurkeztu zuen, kontu horretako gordailuak blokeatu zituelako. Sententziak azaltzen duen bezala, demandatzaileak ez du egiaztatu dagokion oinordetza-zerga ordaindu duenik. Horrez gain, irabazpidezko erregimena ez da oraindik likidatu, ezinbestekoa dena gero jarauntsia banatzeko. Beraz, gaur egun ez dakigu gordailuaren zenbatekoa zein den demandatzailearena, ez dago esleipen zehatzik. Gainera, bakarrik banaketa eta esleipenaren bidez ematen zaio jaraunslari dagokion ondasunen jabetza eskusiboa. Horrela, Espainiako Bankuaren doktrinaren arabera, jaraunslaren ondasunen esleipena egiaztatuta ez dagoenez, agerikoa da apelatutako erakundeak ezin zuela onartu eskatutako saldoa erabiltzea; beraz, bere jarduketak zuhurtasuna jarraitu zuen, bere bezeroei kalte egin diezaikeen jaraunsiaren xedapen bidegabeak egin ez zitezen; horregatik demanda ezeztatzen da”.

---

<sup>74</sup> 430/2019ko Sententzia, urriaren 28koa (RJ 12632/2019):

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b80bf2fdbd1c957d/20191112>

Titularkidearen heriotza ez du xedapen-erregimena aldatuko ere; beraz, solidaritateak indarrean jarraituko du hildako titularra ordeztzen duten jaraunseleen eta oraindik bizirik dirauten kontuaren titularren artean. Bizirik dagoen titularrak banku-kontua erabiltzen jarrai dezake baina jaraunselek agindutako tramitazioa burutzera behartua daude funtsak eskuratzeko. Bigarrenik, kausatzailearen jaraunselek funtsak erabili ahal izateko, Kutxabank-i egiaztatu beharko diote heriotza-ziurtagarria, testamentua edo oinordetza antolatzeke kausatzaileak erabilitako tresna juridikoa (egotekotan) oinordeko izaera erakusteko, eta dagokion oinordetza-zerga ordainduta egon beharko da.

Baina, egoera honetan, galdera bat egitera behartuta gaude: jaraunselek zer jasotzen dute kausatzailearengandik: xedatzeko ahalmena edo kontuarekiko jabetza? Gai garrantzitsua eta gatazkatsua izan da gure jurisprudentzian eta doktrinan, eta, horregatik, aurrerago aztertuko dugun arren, hemen baieztatu dezakegu soilik jabetza-eskubidea transmititzen dela. Esaterako, MUÑOZ-PLANAS jaraunseleen eta titularren arteko jabekidetzaren presuntzioa aurreikusten du, ordea, bestelako ebazpenak jabekidetzaren presuntziotik hutsaltzen dira<sup>75</sup>. Dena den, argi geratu da jaraunselek kontuaren funtsak atera ditzaketela baldintzak betetzean, Kutxabank-ek ahalmen hori transmititzen dielako oinordeko izaeragatik. Aitzitik, jaraunsele jitea Kutxabank-i erakusteak soilik ez du balio; izan ere, kondizio horretatik jaraunsiarekiko zein kuota dagokion adierazi behar da (adibidez, kontu korrontearen %15 utzi dio kausatzaileak oinordekoari). Behin dagokion zatia zehaztuta egotean, entitateak kantitate horren eskuragarritasuna emango dio oinordekoari (funtsak ateratzeko eta erabiltzeko ahalmena). Kontuan hartzekoa da oinordek ez dutela izango kontu osoaren erabilgarritasuna, soilik bere zatiarekiko, bizirik dirauen titularrak bakarrik horren gaineko xedapen-ahalmena baitu. Egoera horrek ez du eragozten jaraunselek titularraren aurka akzio zibilak egikaritzea (AGren sententzietan ikusten den bezala- 5. puntua), titularrak banku-eragiketarak egin baditu jaraunspen-masaren kaltetan.

---

<sup>75</sup> 1995ko abenduaren 19ko ebazpena: “No cabe atribución por partes iguales ni presunción de titularidad dominical ya que eso lo disponen las relaciones internas de los titulares”.

#### 10. Agindu kontraesankorrak

Kontuaren titularrengandik dauden fondoei buruzko agindu kontraesankorrak jasoz gero, Kutxabankek gordailaketa judiziala egin ahal izango du.

#### 11. Adostasunagatiko atxikipenak

Titularrak igorritako edo baimendutako agirien zioz Erakundeak beste Erakundeei ematen dizkien adostasun lotesleei dagokienez, Titularrak beraien zenbatekoa kontuan atxikitzea baimentzen du. Era horretan, saldo erabilgarria adostasuna ematen den unean bertan murriztuko da.

#### 12. Saldoen Konpentsazioa

Titularraren izenean kontu bat baino gehiago baldin badaude, izaera edo diru ezberdinetakoak badira ere, saldo zordunak saldo hartzekodunek bermatuko dituzte. Hortaz, bi alderdiek konpentsatu ahal izango dute edozein kontutako saldo zorduna beste kontuetako saldo hartzekodunez, edozein direla jasotako forma eta dokumentuak, mugaeguneratze-data eta eskubidearen titulua, bai eta gordailuarena ere. Alderdi kontratu-egileek esanbidez ituntzen dute hemen ezarritako konpentsazioa gauzatzeko ez dela kontuan hartuko zorrarekin konpentsatu beharreko kreditua titularretako bati edo guztiei egotzi ahal izatea. Saldo zorduna erabat kitatzeko beste diru ez badago, lehenengo, gastu eta komisioak konpentsatuko dira, ondoren, interesak, eta azkenean, kapitala, zor mota horietako bakoitzaren barruan partida zaharrenetatik hasita.

**Hamargarren eta hamabigarren klausulak** entitatearen jokabidea aurreratzen dute titularrek emandako agindu kontraesankorren aurrean. Klausulak ezarritakoa logikoa da, izan ere batek tratu eskusiboa izan ez dezan eta besteak, berriz, tratu diskriminatzailea. Jarrera neutral hori hartu behar dute erakunde guztiek titularren arteko gatazka-kasuetan. Sortutako arazoa ez badute konpontzen titularrek, Kutxabank-ek kontuaren gordailu judiziala egitea erabaki dezake konponketa gisa. Modu honetan, Justizia Administrazioako organoen eskura jartzen dira kontuaren babeserako, prozesu judizialak horren erabakia hartu arte.

#### 4. Titular batek eskatutako aldebakarreko blokeoa

Errealitateak erakusten digu zehaztugabeko banku kontuak ez direla hartzekodunek banaka une jakin batean prestazio bat jasotzeko tresna soila, ez da noizbehinkako harremana. Halaber, banku kontu hauetan jarduten duen solidaritate aktiboa ez da kobratzea errazten duen baliabide bat, kontratuzko harreman iraunkor baten aurrean gaudelako, luzatu daitekeena segidako prestazioekin. Nolanahi ere, titularren barne-harremanak beti du elementu komun bat, haien funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoa dena: konfiantzazko harremana. Nahiz eta, familia-harreman, sozietate-harreman edo ezkontza-harreman izan, guztiek dute konfiantzazko maila handia elkarren artean, denboran irauten duena. Aipatutako konfiantza banku-kontuaren jatorria

da, arrisku handia hartzea justifikatzen duena. Baina denbora igarotzean konfiantza-harreman hori desagertu egin daiteke hainbat inguruabarrengatik (ezkontza-krisia sortzea, familian liskarrak egotea oinordetza dela eta...). Horregatik, hasieratik funtsezkoa den ezaugarria denez, elkarrekiko konfiantza horren hausteak eragin eta garrantzi handia izango du kontratuzko harreman bertan. Konfiantza hori izan zen zehaztugabeko banku kontua sortzeko oinarria edo arrazoia eta, aldi berean, puntu horretara iritsita blokeatu nahi izateko oinarria izan daiteke. Kontratuaren oinarria den konfiantza hori gutxitu edo desagertu egiten denean, ez dauka zentzurik zehaztugabeko modalitatean mantentzeak kontua. Horrenbestez, bankuak ulertu eta aintzat hartu beharko luke kontua alde bakarretik blokeatzeko eskaera. Hala ere, zertan oinarritu dezake bankuak eskaera hori onartzeko? Egia esan, arazo horren konponbideak ez du lege-oinarririk, ez baitago banku-kontratu horietara bideratutako araudirik; horren ondorioz, doktrinak kontratu hauen izaera eta funtzionamendua kontuan hartu du konponbidea eman ahal izateko<sup>76</sup>.

Kontua blokeatzearen helburua da titularrek funts guztiak kendu ez ditzaketela errepresalia bezala; hau da, funtsak babesteko modu bat da akordio batera iritsi arte. Kontua blokeatzean, titularren ahalmen xedatzaileak eraldatzen dira, ezin baitituzte funtsak askatasunez baliatu. Kontua kudeatzeko moduari eragiten dio baina ez du banku-kontratua aldatzen, bi aldeek aurretik hartutako eskubideak eta betebeharrak mantentzen dituztelako. Soilik aldatzen da kontuaren xedapen-erregimena titularren baterako jarduketa beharko baita, kontua mankomunatuan bihurtuz. Horrek kontuaren kontrol gehiago izatea erraztuko du, beharrezkoa dena konfiantza galtzearen ondorioz. Beste modu batean esateko, titularkideen banku kontuak konfiantza iraunkorra duenez oinarri gisa, horren desagertzeak aldebakarreko ahalmena ematen du mankomunatu bihurtzeko. Beraz, aldebakarreko ahalmena onartzen da bankuaren edo gainerako titularren baimenik gabe kontua blokeatzeko; konfiantzazko etendura horren ahalmena oinarrizko arrazoia delako. Ikusi dugunez, zehaztugabeko banku kontu horrek funtzionamendu eta eduki berezia du, eta horrek *solidaritate aktibo atipikoaren* aurrean egotea suposatzen du. Egoera juridiko honen berezitasunak direla eta, badaude Kode Zibilaren arauak ez direla aplikagarriak inguruabar honetan. Horregatik, artikuluen moldaketa edo egokitzapena egitea komeni da, 1142. artikulua zehazki. Zordunak

---

<sup>76</sup> MARTÍNEZ NADAL, Apolonia: “Cuentas indistintas de titularidad conyugal”, *Revista de derecho bancario y bursátil*, 14. liburukia, 59. zenbakia, 1995, 721-747 orrialdeak.



hartzekodunari zorra ez ordaintzeko aukera izango du kontua blokeatzen denean; izan ere, moldaketak berekin dakar aldebakarreko solidaritatearen salaketa onartzea. Ahalmen hori kontratuko edo legezko oinarririk gabe onartzen da, baina kontratuaren eduki, funtzionamendutik eta dagoen barne-harremanen egituratik ondorioztatzen da. Argi geratu behar da harreman horretan solidaritateak ez duela une batean zorra kobratzeko tresna gisa jokatzeko, hasierako sorkuntzatik duen garrantzia bereizten da, eta, ondorioz, kontratuaren oinarri den konfiantza hausturaren garrantzia aintzat hartu behar da. Horri dagokionez, bankuari zuzendutako aldebakarreko borondate-aitorpena egin beharko da. Jasotzen denetik, bankuak bere obligazioa bete behar du xedapen-modalitate berriaren arabera (mankomunatua gure kasuan). Gainerako titularkideen adostasuna beharrezkoa ez bada ere, komenigarria da xedatzeko ahalmenen aldaketa jakinaraztea, kontratu-harreman guztietan nagusi izan behar duen fede oneko eskakizunengatik. Horrela, Bartzelonako Probintzia-Auzitegiaren sententzian<sup>77</sup> banku-kontratu mota hau auziaren objektua da eta errekurtsogileak Caixa bankuari erantzukizuna leporatzen dio bere jarduketagatik. Hala ere, magistratuek eskaera desestimatzen dute bankuaren jokabidea egokia izan delako: *Kontratu honen bigarren klausulan, zehaztugabeko titulartasuna (solidaritatea) ezartzen da, eta titular bakoitzak titulartasun horretatik eratorritako eskubide guztiak balia ditzake, baita baliogabetzea ere. Frogen arabera, diruaren xedapena auzi-jartzaileak kontua blokeatzeko eskatu baino lehen egin zen, eta, beraz, Caixako langileak ez zuen akatsik egin. Amaitzeko, aipatzekoa da onartutako blokeoa hedatzen dela titular baten heriotza kasuetan. Kasu hauetan, solidaritate aktiboak edozein hartzekodunari ordaintzeko aukera ematen badu ere, araudia egoera atipiko honetara egokitu behar da praktika egokia izateko<sup>78</sup>. Horrela, egokiagoa da banku-erakundeek kontu handiz jokatzeko eta kontuaren aktiboen blokeoa burutzea, titulartasun-froga aurkeztu eta oinordekoek zergazko obligazioak bete arte. Saldoaren jabetza-frogarik ez badago, erdibana ulertu behar da bizirik dirauen titularraren eta kausatzailearen oinordekoen artean<sup>79</sup>.*

---

<sup>77</sup> PAren 498/2012ko Sententzia, irailaren 21koa:

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/416a31e152a03050/20130301>

<sup>78</sup> FERRANDO VILLALBA, M<sup>a</sup> de Lourdes: *Titularidad indistinta de cuentas bancarias*, Tecnos, Madril, 1998, 26-36 orrialdeak.

<sup>79</sup> AGren 1994ko azaroaren 21eko sententzia: *Jabetza eskusiboa egiaztatu ez denez, eta 1138. artikulua aplikatuta, bankuaren kreditua hartzekodunen arabera zatitan banatu dela uste izan behar da.*

Amaitzeko, egokia iruditzen zait Espainiako Bankuaren webgunea aipatzea, gai garrantzitsu edo eztabaidatuei buruzko informazioa ematen baitio jendeari. Adibidez, gure gaiari dagokionez, Espainiako Bankuak berak adierazten du erakundeek nola jokatu beharko luketen, titularkideen artean desadostasunak baitaude. Kontu baten titularrek (edo haien oinordekoek) bankuari jarraibide kontraesankorrek ematen badizkiote, bankuak jarrera neutrala hartu behar du, horietako inori mesede egin gabe. Ezinbestekoa bada, kontua blokeatu ahal izango du titular guztiei bere erabakiaren berri emanaz, haien artean akordio bat edo erabaki judizial bat lortu arte. Beraz, banketxeak kontua blokeatu dezake beharrezkoa bada, titularrek konfiantzazko harremana hautsi delako<sup>80</sup>. Ikuspegi hau hedatzen da heriotza kasuetan ere, oinordekoen jaraunspena finkatuta ez dagoenean edo haien artean gatazkak nabarmentzen direnean. Helburua, beraz, jaraunspena babestea da, kalterik eragin ez dakion, baita jaraunselearen eta bizirik dirauen titularraren interesak ere, ez dadin bidegabeko apropiazioerik egon. Esate baterako, Leongo Probintzia-Auzitegiaren ebazpenak<sup>81</sup> egoera hau islatzen du eta gainera interesgarria da kontu korrante mota huen azkentzea edo kantzelaioa azaltzen duelako. Obligaziozko harremana azkentzeko bien adostasuna behar da.

“Macarenak (biloba) eta Edurnek (amona eta kausatzailea) kontu bereizigabea zuten Liberbank bankuan. Edurne hiltzean bere semeak (Jon), herentzia zatitzeko prozedura hasi zuen epaitegian eta ebazpenean kontuan zeuden 5000 euro sartu ziren oinordetzaren inbentarioan banaketa egin gabe. “Liberbank”-ek, jakinarazpena jasotzean, blokeatu egin zuen zenbateko hori eta oinordekoek ezin zituzten kontuko funtsak xedatu. Macarena auzi-jartzaileak, oinordetzaren gaineko zerga izapidetu ondoren, "Liberbank" banku-erakundera joan zen haiek eskatutako agiri guztiekin, esleipenaren ondorioz berari zegokion zenbatekoa kentzeko eta kontua ixteko. Erakundeak adierazi zion ezin zuela hori egin Jon jaraunselearen sinadurarik gabe. Kontu bereizietan, titular guztiek eman behar dute kontua ezerezteko adostasuna; izan ere, nahitaezko harremana azkentzeko, beharrezkoa izango da titularkide guztiak ados egotea horri buruz. Jonek, jarauntsian

---

<sup>80</sup>Espainiako Bankuaren webgunea: <https://clientebancario.bde.es/f/webcb/RCL/ProductosServiciosBancarios/CuentasDepositos/CuentasCorrientesDepositosLibretas/VidaCuenta/bloqueodelacuenta.pdf>

<sup>81</sup> 249/2020 Sententzia, irailaren 14koa. (RJ: 1062/2020): <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f4b87a7391188e57/20201022>

esleitu zitzaion zenbatekoa jada jaso zuenez, ez zuen kontuko funtsen gaineko titularitaterik; hala ere, jaraunlea zenez, bere adostasuna ezinbestekoa zen gainerako titularkideek kontua azkendu ahal izateko”.

## 5. Titular baten heriotza

### 5.1. Banketxearen posizio juridikoa

Kontu korrante bereizigabea izatearen arazo handienetakoa titularkide baten heriotza da, haren ondorioz kausatzailearen jaraunleen eta bizirik dirauen titularraren interes kontrajarriak direla eta. KZaren 661. artikulua<sup>82</sup> oinordetza arautzen du, kausatzaileak utzitako harreman juridikoak jaraunleari eskualdatzean datza, bere osotasunean haren posizio juridikoan jarraitzaile gisa kontsideratzea. Aitzitik, bankuak nahitaez bete behar du beste titularkideak sinatutako edozein xedapen-agindu, eta hark ezin du eskatu kausatzailearen jaraunleen adostasuna, solidaritate aktibo hori elkarrekikoan oinarritzen baita<sup>83</sup>. Beste kontu bat litzateke hildako titularraren jaraunleek, funtsez baliatu duen titularraren kontra egitea horren erreklamazioa gauzatzeko, baldin eta hildakoaren jabetzakoak baziren. Alderdi honen azterketa eta balorazioa barne-harremanean sartzan dira, eta, beraz, kreditu-erakundeak ez du horren aurrean erantzukizunik. Solidaritate aktiboa ez da desagertzen heriotzarekin<sup>84</sup>; horrenbestez, titularkidea hiltzean utzitako kontu bereizigabearen kasuan zer da eskualdatzen dena, bere jabetza edo xedatzeko ahalmena?. Printzipioz biak, baina ez automatikoki, horren egiaztapena egin behar delako. Erakundeek ez dute aurreuposatzen jaraunleek eskubidea dutenik zegokion zatia bakarrik xedatzeko, solidaritate aktiboa ez delako desagertu eta funtsen erabilgarritasuna berdin mantentzen baita. Horregatik,

---

<sup>82</sup> *Los herederos suceden al difunto por el solo hecho de su muerte en todos sus derechos y obligaciones.*

<sup>83</sup> Espainiako Bankua (2013): “Memoria de Reclamaciones”. 261. eta 262. orrialdeak. Bde.es: <https://www.bde.es/f/webbde/Secciones/Publicaciones/PublicacionesAnuales/MemoriaServicioReclamaciones/19/Documentocompleto.pdf>

<sup>84</sup> AGren Sententzia, 1992ko uztailaren 7koa: “Régimen de solidaridad no decae ante la muerte de uno de los cotitulares [...] Para resolver ese pretendido problema no hay ninguna previsión de este tipo, ya que la solución está en la normativa del derecho sucesorio, concretamente en el artículo 661 del Código Civil”.

bereizi egin behar dira funtsen erabilgarritasunaren auzia eta horien jabetzaren auzia; gai hori bakoitzari dagozkion akzioen bidez ebatzi beharko da bide judizialek, funtsen jabetza finkatze aldera. Garrantzi handikoa da jakitea banku-kontuaren titularkidetasuna, bi pertsonaren izenean agertzen den itxura dela eta, jabetza-presuntzio sinple bat sortzeko baino ez da, kontrako froga onartzen duena; baina presuntzio hori errealitatearekin bat datorren zehaztea ez dator bat titular bakoitzak kreditu-erakundearekin duen harremanarekin.

Bestalde, kreditu-erakundearen posizioa ez da erraza, ez baitago kasu horietara bideratutako araudirik, oinordetzetan iruzur fiskala saihesteko zerga-xedapenak izan ezik. Hori dela eta, finantza-erakundeek honi buruzko klausulak sartzen dituzte banku-kontratuan, bizirik daudenek erakundeari heriotzaren berri emateko erantzukizuna izan dezaten; horrela, bankuak bere burua errugabetzen du edozein erantzukizunetatik, eta jaraunsleek erantzukizuna dute, ez egiteagatik edo berandutzeagatik<sup>85</sup>. Hala ere, bankua informazio- eta kontrol-betebeharren subjektua bada. Erakundeak titularraren jaraunsleak direnei kontuaren titulartasunaren eta bere saldoaren berri eman behar die heriotzaren momentuan, bai eta gerora izandako mugimenduen berri ere. Horrez gain, kontua erabili ahal izateko zerga-betebeharrak bete behar direla ohartarazi beharko die. Eskumen horiek esleitzeko oinarria Espainiako Bankuaren 1993ko Erreklamazio Zerbitzuaren Memoria da, hitzez hitz azaltzen baitu: “Entitateei berei dagokie oinordekoen legitimazioa ziurtatzea, esku hartzen duten subjektuen (oinordekoak eta titularkideak) aurrez aurre dauden interesen arteko orekari eutsiz; jarduera horren buru lankidetzaren, gardentasun- eta argitasun-printzipioa izango da beti, interesdunaren jarrera edozein izanda ere (titularra, familiakoa edo oinordekoa)”. Bai gardentasun-araudiak, bai Espainiako Bankuak, jardunbide egokien irizpideek kreditu-erakundeek jaraunsleekin dituzten informazio-betebeharrak zehazten dituzte<sup>86</sup>. Hau da, jaraunsleek banku-kontua erabili edo xedatu ahal izateko, entitateak legitimazio hori egiaztatzeko ardura eta obligazioa bere gain darama. Behin jaraunsle posizioa frogatuta eta dagokion zergak ordainduta, xedapen-ahalmenak izango ditu kausatzaileak zeukan modu berdinean. Banku-kontuan titular gisa agertu arren, ez dago printzipioz horren jabetza eskusiborik edo jabetza-

---

<sup>85</sup> FERRANDO VILLALBA, M<sup>a</sup> de Lourdes: “Titularidad indistinta de cuentas bancarias”, *Colección jurisprudencia Práctica*, Tecnos, Madril, 1998, 26-31. orrialdeak

<sup>86</sup> Espainiako Bankua (2019): *Memoria de Reclamaciones*, 494-496. orrialdeak. Berreskuratuta : bde.es

erkidegorik. Espainiako Bankuak berak, 2013., 2014. eta 2015. urteetako Erreklamazioen Memoretan, banku jokabide egokiak berresten ditu, bai eta banku-jarduera diziplinatzen duten arauak ere, errepikatzen baitu finantza-erakundeek ziurtatu behar dutela, indarrean dagoen legeria eta araudi hori betetze aldera, oinordekoek izaera hori dutela.

## ***5.2. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren bilakaera***

Azken atal honetan Auzitegi Gorenak izandako ibilbidea aztertuko da, azken urtetan izan duen ikuspegia eta garapena ikertzeko. Azterketa honen bidez, ikusi dezakegu AGaren doktrinaren ildoak denboran zehar iraunkorra izaten jarraitu duen edo, aitzitik, ideiak eta irizpideak zehaztuz edo aldatuz joan diren.

## ***XX. mendeko jurisprudentzia-doktrina***

*AGaren 760/1988 Sententzia, urriaren 19koa (RJ 7252/1988)*

Aurrekariak: Victor jaunak aurrezki libreta bat zuen Banco Español de Crédito S.A. sinatua, bere izenean eta bere biloba adingabea Abelardoren izenean modu bereizigabea, 10.000.000 pezeta zituen. Victor hil zen eta bere emaztea Mari Trini oinordeko zegoen izendatuta haren testamentuan. Hala ere, alarguna ohartu zen Abelardo bilobaren legezko ordezkariak, bere aita Diegok, aurrezki-libretatik funtsak atera zituela. Hori dela eta, Mari Trini diru-zenbatekoa erreklamatzeko demanda jarri zuen Diegoren aurka, zenbateko horiek itzul ziezazkion. Frogatuta geratu zen aurrezki-libretan gordailututakoa Victorrek zeukan beste kontu eskusibotik zetorrela, eta, beraz, bere jabetza esleitzen zitzaion, jarauntsiko ondasu bihurtuz. Lehen Auzialdiko Epaitegiak partzialki onetsi zuen demanda, eta Diego kondenatu zuen Mari Trini 4.975.000 pezeta itzultzeraz. Ondoren, Diegok Probintzia-Auzitegian jarritako apelazio-errekurtsua ezetsi zen; eta, azkenik, kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean.

Errekurtsogilearen arrazoi juridikoak eta Salaren erabakia: Interesatzen zaigun gaiari dagokionez, Diegok 1137. artikularen arau-haustea alegatzen du ez aplikatzeagatik. Artikulu horrek aukera

ematen dio edozein hartzekoduni zorra osorik eskatu eta eskuratzeko, eta, beraz, ez zuen inolako akatsik egin Diegok funtsak aurrezki-libretatik ateratzean. Mari Trini, ordea, adierazten zuen libretan gordailututakoa Victor senarraren kontu eskusibo batetik zetorrela; eta bere oinordeko gisa zuen eskubidea baliatuz, kopuru horiek berari zegozkiola. Salak kasazio-errekurtsua ezetsi egin zuen eta gordailututakoaren jabaria Mari Trini andreaki esleitzea berretsi zuen; izan ere, alargunak aurkeztutako frogari esker, libretan zegoen funtsen gaineko jabetza eskusiboa Victorrena zela egiaztatzen zen.

Doktrina: Aurrezki-libreta bereizigabearen titularra izateak ez du gordailututakoaren gaineko jabari-erkidegorik auresuposatzen, ez dago berez ondasun-erkidegorik. Auzitegiek aitortuko dute funtsen jabetza, gordailuaren objektu batena edo bestena dela frogatuta badaiteke. Ez da urratzen Kode Zibilaren 1.137; izan ere, sententziak badaki hartzekodun solidario bakoitzak aukera duela obligazioaren objektu den prestazioa osorik eskatzeko. Alabaina, aukera hori onartzen da kontu bereizi gabe guztietan elkarren artean duten konfiantzaren ondorioz. Hala ere, banku-kontu korronte bereizigabeak bereizitasunak ditu, kausatzailearen jaraunlearen eskubideak oztopa ditzaketenak. Horregatik, titulartasun bereizigabeak ez du eragozten jaraunleak akzioak egikaritzea gordailututakoaren jabaria titularra zen kausatzaileari aitortzeko. Hori da Mari Trini andreak egikaritu duen akzioa oinordeko izateagatik<sup>87</sup>.

*AGaren 85/1991 Sententzia, otsailaren 2koa ( RJ 13198/1991)*

Aurrekariak: Mari Tere demandatzailearen gurasoak dibortziatu ziren 1969an eta bere aitak harreman sentimentala hasi zuen Marinarekin, demandatua izan zena. Ondoren, Marina Rafaelen kristaleria batean hasi zen lanean, bere bikotearen aita eta Mari Tereren aitona zena, hain zuzen ere. Rafaelek testamentua egiten zuen bere seme Kristobal (Mari Tereren aita) oinordeko unibertsal izendatuz. Baina bat-batean, Kristobal hil egin zen eta urte batzuk geroago Rafael. Horren ondorioz, Mari Tere Rafaelen oinordeko bakar eta unibertsal bihurtu zen bere ordezkate-eskubideari esker. Auzi-jartzailea konturatu zen 9.000.000 pezeta inguruko kontu korrontea

---

<sup>87</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5b9ec43ac7c5f1a7/20051011>

zegoela bere aitonaren eta demandatuaren izenean modu bereizigabeen. Ondoren, Mari Terek Estatuko Abokatutzari idatzi bat bidali zion eskatzeko kopuru horren erdia kontutik kentzeko, hala egin zen bezala, beste erdiarekiko erreklamazio judiziala hasten zen bitartean. Judizioz kanpoko bi erreklamazio egin ostean, azkenik, Mari Terek demanda aurkeztu zuen Marinaren aurka diruzenbateko bat erreklamatzeko Madrilgo Lehen Auzialdiko Epaitegian. Epaitegiak ezartzen du auzi-jartzaileari ez zaiola aitortu behar aipatutako kontuen zenbatekoaren gaineko titulartasuna, ezta horiek blokeatzeko edo gordailu judiziala ezartzeko zilegitasun juridikoa. Marina andreak aitortzen zaio gordailututako zenbatekoen % 50en titulartasuna. Probintzia-Auzitegiak erantzun berdina ezarriz gero, Mari Tririk Auzitegi Gorenera jotzea erabaki zuen.

Errekurtsogilearen arrazoi juridikoak eta Salaren erabakia: Mari Terek alegatzen du PZLaren 1.692<sup>88</sup> artikularen urraketa; hain zuzen, Sala honen 1971ko martxoaren 24ko<sup>89</sup> epaian jasotako doktrina. Errekurtsogilea baieztapen honetan oinarritzen da: kontu korrontea Rafael eta Marinaren izenean irekita egon arren, kantitateak Rafaelen negozio zehatz batetik zetozen. Salak adierazten du errekurritutako bi epaiek saldoa biei erdibana dagokiela ebatzi zutela horri buruzko arrazoibiderik eman gabe. Dirudienez, soilik kontu korronte bereizigabeen bi pertsonen izenean egotean oinarritzen dira. Ebazpen sinplista horrekin, errekurritutako epaia auziaren azalean geratzen da, auziaren mamian sakondu gabe. Lehenik eta behin, erabat frogatuta geratu zen (aurreko bi epaiek ez zuten kontuan hartu) kontu korrontearen funtsak "Cristalerías Vilun" negoziotik zetozela soilik, zeinaren jabe bakarra Rafael jauna baitzen. Beraz, agerikoa da kontu horren saldoaren jabetza Mari Tererena dela oso-osorik bere oinordeko gisa, Marina andreak inolako partaidetzarik izan gabe. Errekurritutako epaiak urratu egin du AGk ezarrita daukan azaldutako doktrina, eta, beraz kasazio-errekurtsoa onartzen da.

Doktrina: Bankuko kontu korrontea bi (edo gehiago) pertsonaren izenean irekitze hutsak, arau orokor gisa, *prima facie*<sup>90</sup> dakar soilik edozein titularrek kontuak duen saldoa erabiltzeko ahalmena izatea bankuaren aurrean. Hala ere, ez du berez ezartzen jabari eskubiderik, jabekidetasun bat

---

<sup>88</sup> "Eztabaidagai diren gaiak ebazteko aplika daitezkeen jurisprudentziako arauak haustea".

<sup>89</sup> "Kontu bereizigabea beste baten izenean irekitzeak bakarrik ekartzen du xedatzeko ahalmena, ez kontuarekiko jabetza eskusiboa".

<sup>90</sup> Itxuraz, lehen begi kolpean.

dagoenik, eta are gutxiago zati berdinetan; izan ere, hori titularren arteko barne-harremanek zehaztuko dute, eta, zehazkiago, funtsen jatorrizko jabetzak<sup>91</sup>.

*AGaren 701/1992 Sententzia, uztailaren 7koa ( RJ 5555/1992)*

Aurrekariak: Ceciliak eta Abelardok adierazpeneko demanda aurkeztu zuten “Caja de Ahorros”-en aurka, Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrean. Bi auzi-jartzaileak Jose Ramon kausatzailearen seme-alabak eta oinordekoak dira. Heriotzaren momentuan, Jose Ramonek eta Josek titulartasun bereizigabeko bi aurrezki-libreta zituzten, entitate demandatuan. Oinordetza irekitzean, bere seme-alabek idatziz eskatu zizkieten Kutxari hildakoak gordailuan zituen kopuru guztiak. Bankuaren isiltasunaren aurrean, Ceciliak eta Abelardok lehen auzialdian aipatutako demanda aurkeztu zuten. Bestalde, Jose jaunak banketxeari eskatu zion libretaren zenbatekoak berari esleitzeko, eta erantzun zion banketxeak ezinezkoa zela, hildako titularkidearen jaraunsleek jarritako demanda ebazteko prozesuan zegoelako. Jarrera hori ikusita, Josek “Caja de ahorros” demandatu zuen, eta entitatea kondenatu zuen epaitegiak funts guztiak haren esku jartzera. Baietsi egin zen Josek aurkeztutako demanda, eta ezetsi egin zen hildako titularkidearen oinordekoek jarritako demanda. Hori dela eta, jarritako apelazio-errekurtsoa Probintzia Auzitegian partzialki onetsi zen “Caja de Ahorros”-a absolbituz. Alderdien (Jose eta kausatzailearen jaraunsleak) funtsen erabilgarritasuna onartzean %50etan bakoitzari, bakoitzari dagozkion akzioak alde batera utzi gabe, eskuragarritasun hori jabetzarekin bat ez datorrela uste baitute epaileek. Azkenik, titularraren oinordekoek kasazio-errekurtsoa jarri tarteratu egiten dute finantza-entitatearen eta Joseren aurka.

Errekurtsogilearen arrazoi juridikoak eta Salaren erabakia: Errekurtsogileek oinarri bakar gisa leporatzen dute 657, 440, 658, 659 eta 661. artikuluen urraketa, 1.142 artikuluekin konektatuz, guztiak Kode Zibilarenak. Justifikazioan alegatzen dutenez, Juan Ramonen jaraunsle izateagatik haren oinordeko dira eskubide eta betebeharrak guztietan, eta horien artean dago auziaren sorburu den aurrezki-libreta. Kausatzaileak eta bizirik dagoen titularkideak kopuru guztiak kentzeko ahalmena

---

<sup>91</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/07773222a3efe7a0/19960106>



bazuten, ez da ulergarria lehenengoaren jaraunsleek ahalmen bera ez izatea, erdira murrizten baita. Horrez gain, 1142. artikulua aplikatuz, errekurtsogileek Don Josek baino lehen demanda aurkeztu zuten banketxearen aurka; hortaz, haiei egin behar zien ordainketa errekurritutako kutxak. Salak osorik baiesten du kasazio-errekurtsoa, eta entitatea kondenatzen du hildakoaren jaraunspen-erkidegoari hura hiltzean zegoen saldoa itzultzera, hurrenez hurren, dagozkion zerga-xedapenak betez.

Doktrina: Sala honen doktrinaren arabera, banku-gordailuetan solidaritate aktiboaren arauak aplikatu behar dira, zeintzuen arabera titular bakoitzak (edo haren jaraunsleek), prestazioa osorik eskatzeko eskubidea du erakundearen aurrean. Hala ere, gordailuan utzitako edo kendutako zenbatekoak norenak diren argitzeko haien artean (barne-harremana) konpondu behar dute, dagozkien akzioak gauzatzeko. Titular bat hiltzerakoan, bidezkoztat joko da haren jaraunsleek eta bizirik dagoen titularrak eskuragarritasunaren erdia izatea, egikari ditzaketen akzioei kalterik egin gabe. Baina Sala honek ezin du interpretazio hori aplikatu, arauak aplikatzeko irizpide bat delako, baina ez du irtenbide juridiko gisa balio, legegileak adierazten duenean izan ezik (KZaren 3.2 art<sup>92</sup>). Arazo hori konpontzeko ez dago horrelako aurreikuspenik. Horregatik, gure auzian oinordetza-zuzenbidea aplikatzeko beharra dago, zehazki, Kode Zibilaren 661 artikulua, onartezina delako esatea solidaritate aktiboa desagertu egiten dela hartzekodunetako baten heriotzarekin; inolako legerik ez baitu halakorik ezartzen. Argi dago banketxeak errekurtsogileek egindako errekerimenduari erantzun behar izan ziola; jakina, dagokion zerga-xedapenak betetzean. Bestalde, kontuan hartuta errekurtsogileek Jose baino lehenago jarri zutela salaketa kutxan, horiei egin behar die ordainketa demandatua izan den zordunak, Kode Zibilaren 1.142 artikulua aplikatuz. Beste kontu bat da diru horren jabetza nori dagokion, zeina titularkide desberdinek euren artean edo euren jaraunseleekin eduki baitezakete partekatua, barne-harremanak arautzen duena eta entitatea puntu honetan kanpoan geratuz. Baina solidaritatea ez da desagertzen heriotzarekin eta, beraz, funtsen eskuragarritasun berari eusten zaio. Auzi honen mamia ez da aitortzea norena den funtsen jabetza, beste aurrekoan gertatu zen bezala. Hemen ez da funtsen jabetza norena den zalantzan jartzen, baizik eta jaraunseleei dagozkien xedapen-ahalmenak zehaztu

---

<sup>92</sup> “*Ekitatea balioestekoa izango da arauak aplikatzean; hala ere, auzitegiek emandako ebazpenen oinarri eskusiboa ekitatea izan dadin, legeak beren beregi ahalbidetu behar du hori.*”

nahi dira; argitzeko ahalmen hauek jaraunsleek bereganatu bazituzten ala ez. Era berean, Auziak finantza-entitateak egindako jarduketak aztertu behar ditu kontratuzko obligazioak bete dituen egiaztatzeko. Ikusi denez, solidaritatea ez da heriotzarekin desagertzen eta horrenbestez, jaraunsleek xedapen-ahalmenak berdintasunez bereganatzen dituzte hildakoak, titularrak, zeuzkan bezala (jabetza eskusiboa aitortzeko akzioak kaltetu gabe)<sup>93</sup>.

*AGaren 1061/1994 Sententzia, azaroaren 11koa (RJ 7495/1994)*

Aurrekariak: Joaquin jaunak kantitatea erreklamatzeko demanda aurkeztu zuen Paulinoren aurka. Paulino jaunak bere emaztearekin Rosariok kontu korrante bereizigabea zuten banketxean. Rosario hil zen eta haren testamentuan Joaquin oinordeko izendatu zuen. Horrenbestez, Joaquinek aurkeztutako demandan Paulinori erretiratutako kantitatea bueltatzeko erreklamatzeko zion. Lehen Auzialdiko Epaitegiak demanda desestimatu zuen eta demandatzaileak Probintzia-Auzitegira jotzen zuen; kasu horretan, errekurtsua partzialki onetsi zen Paulinori kondenatuz kantitate erretiratukoaren erdia bueltatzera Joaquin. Errekurtsogileak (Paulinok) honen erabakiaren aurrean, kasazio-errekurtsua aurkezten du.

Errekurtsogilearen arrazoi juridikoak eta Salaren erabakia: KZaren 1068. artikularen<sup>94</sup> urraketa alegatzen du; izan ere, gordailututako zenbatekoak Rosarioren jabetzakoak bakarrik zirela dio. Horregatik, bere jaraunslea denez, Rosario kausatzaileak zeukan kontuaren zenbatekoen jabetza eman behar zaio. Bestalde, KZaren 1281<sup>95</sup>. eta 1285. artikuluen haustearen alegazioa eman zuen bi titularkideen artean eta Bankuarekin sinatutako kontratuen interpretazioa kontuan hartzeko. Baina errekurritutako epaiak oinarri faktikotik ondorioztatzen du ez zegoela diru horietako baten jabetza eskusiboko frogarik, nahiz eta Bankuaren aurrean bata zein besteak edozein kopuru atera ditzaketen kontutik. Kasu honetan, KZaren 1138. artikulua aplikatuz, ezin da errekurtsua onartu. Salak kasazio-errekurtsua ez du onesten eta Probintzia-Auzitegiak epaitutakoa berresten du.

---

<sup>93</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/39c95ba2dca459f2/20040319>

<sup>94</sup> *La partición legalmente hecha confiere a cada heredero la propiedad exclusiva de los bienes que le hayan sido adjudicados.*

<sup>95</sup> *Si los términos de un contrato son claros y no dejan duda sobre la intención de los contratantes se estará al sentido literal de sus cláusulas.*

Doktrina: Gaur egun derogatuta dagoen KZaren 1214. artikulua aplikatuz, frogaren zama uziari eusten dionak hartzen du bere gain. Kasu honetan, errekurtsogileak kontuaren jabetza eskusiboa Rosariorena dela alegatu arren, ez du frogatu baieztapen hori eta frogarik eman gabe ezin zaio esleitu jabetza eskusiboa. Hala, ezin da ulertu kontuko diruaren jabetza titularkide bakar bati dagokiola osorik, behar bezala egiaztatzen ez den bitartean, eta kasu honetan, inork ez du frogatu jabetza eskusibo hori. Kontu honek Bankuaren aurrean duen kreditua, beraz, bi titularkideei dagokie, eta ondasun-erkidego bat eratzen dute ondasun horrekiko. Hau da, titularra hil aurretik jabetza eskusiboa egiaztatuta ez badago, gordailututakoa bi titularkideei dagokie kontuan dagoena, ondasun-erkidegoa eratzuz (KZaren 392. artikulua<sup>96</sup>). Hala ere, heriotza momentutik bakoitzaren kuota zein den zehazteko (jaraunseena eta gainerako titularrena), Auzitegiak KZaren 1138. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar du; izan ere, doktrinaren arabera, kontu korrontean dagoen zenbatekoaren jabetza eskusiboa frogatu ez denean, bankuaren kreditua zatituta dagoela estimatu behar da hartzekodun kopuruaren arabera. Horren ondorioz, Rosario titularkidea hiltzean, biak dira Bankuan gordailututako zenbatekoaren erdiaren jabe eta, 659. artikulua<sup>97</sup> aplikatuz, erdi hori kausatzailearen jaraunspenean sartzen da<sup>98</sup>.

### ***XXI. mendeko jurisprudentzia-doktrina***

*AGaren 243/2003 Sententzia, martxoaren 14koa (RJ 1735/2003)*

Aurrekariak: Sonia eta Simon ondasun-banantze erregimenean ezkondu zirela eta bankuan kontu korrante desberdinak zituzten bien izenean. Simon hil egin zenean, bere emaztea oinordeko unibertsal zegoen izendatuta, fiduziario izateaz gain. Horrek Soniari aukera ematen zion jaraunspeneko ondasunak *inter vivos* eta kostu bidez besterendu eta eskualdatzeko. Era berean,

---

<sup>96</sup> “*Hay comunidad cuando la propiedad de una cosa o un derecho pertenece pro indiviso a varias personas*”.

<sup>97</sup> “*La herencia comprende todos los bienes, derechos y obligaciones de una persona que no se extingan por su muerte*”.

<sup>98</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/32b50d481703e483/20040709>

gerakinen bat geratuz gero, bere iloba “Carlos Jesus” fideikomisodun oinordeko izendatu zuen kausatzaileak; hari eskualdatuko litzaizkioke jaraunseak xedatu ez dituen jaraunspenaren ondasunak. Beste aldetik, Sonia bere ahizpa Reginarekin joan zen bizitzera senarra hil zitzaionean eta elkarrekin bankuan kontu korrante bereizigabeak ireki zituzten, senarraren jaraunspen-ondasunekin hornituta. Azkenik, Sonia hil egin zen momentuan, Regina bere oinordeko bakarra bihurtu zen, jaraunspena onartzeko eskritura sinatu baitzuen. Carlos Jesusek, izendatutako jaraunse fideikomisodun gisa, demanda aurkeztu zuen Reginaren aurka, demandatuak itzul zitzaiz jaraunse fiduziarioak (Sonia) zituen zenbatekoak, bi ahizpen banku-kontuek zituztenak. Bai lehen auzialdian, bai bigarren auzialdian, auzi-jartzailearen uziak baiesten dira, eta Regina kondenatu egiten dute zenbateko horiek fideikomisoari itzultzera. Auzitegi Gorenera heltzen da Reginaren helegitea.

Errekurtsogilearen arrazoi juridikoak eta Salaren erabakia: Alegatzen du Reginak PZLaren 1692. artikulua arau-haustea zenbait epai txertatuz, doktrina behar bezala ez aplikatzeagatik. Bertan, errekursogileak alegatzen du bere ahizparekin kontu bat edukitzeak ez duela esan nahi jabetza berea denik; are gutxiago Simonena, ez baita bere oinordekoa. Egoera horren aurrean, auziaren xedea argi eta garbi zehaztuta dago, eta, bertan, jaraunse fideikomisodunak dohainik eta *mortis causa* oinordeko fiduziarioak xedatu zituen kopuruak itzularazi nahi ditu; horietan daude bi ahizpen izenean dauden kontuetako funtsak. Auzitegiak baietsi egin behar dela adierazten du, egiaztatuta geratu baita kontu horiek Simonen jaraunspenarekin hornituak zeudela. Egitate frogatua da, kasazio-irrotasuna duena eta errespetatu beharrekoa. Horregatik, errekurtsoa ezesten da eta errekursogileari ezarritakoa berresten da.

Doktrina: Kontu, gordailu eta bestelako banku-kontratuetan titular aniztasuna dagoenean, denek funtsak erabilgarri dituzte baina, berez, datu horrek ez du adierazten saldoen jabekidetasunik. Titularren arteko barne-harremanek zehazten dute hori, eta, zehazkiago, kontu horiek elikatzeke erabili diren funtsen edo zenbakien jatorrizko iturriak. Zehaztugabeko banku-kontu korrantea irekitzearen ondoren, ez zaie funtsei eragiten zati berdinetan banatzeko titularren artean<sup>99</sup>. Horrek baimentzen du jabetza ez daukan titularra baztertu eta besterentzeko. Kasu honetan gertatzen den bezala; izan ere, errekurritutako epaiak egitate frogatutzat jo zuen eztabaidatutako funtsak Simon

---

<sup>99</sup> 1999ko uztailearen 5eko Sententzia.

jaunak baino ez zituela jarri. Horrez gain, ondasun-banantze erregimenean ezkondata egoteak mantentzen du funtsen jabetza eskusiboa; ez zaio transmititzen Soniari. Horrenbestez, Simonen jaraunspenaren barruan jarraitzen dute egoten eta Sonia behartuta dago gerakina Carlosi ematera, fideikomisodun izaeragatik; izan ere, ez da alde batera utzi behar fideikomisodun jaraunleek fideikomisogilearengandik (Simon) oinordetzen dutela, eta ez fiduziarioarengandik (Sonia)<sup>100</sup>.

*AGaren 83/2013 Sententzia, otsailaren 15ekoa (RJ 505/2013)*

Aurrekariak: Margarita eta Ronaldo irabazpenezko erregimenean zeuden ezkondata eta zenbait zehaztugabeko kontu korrante zituzten bere izenean. Ronaldoren amari loteria tokatu zitzaion eta bere semearekin banatu nahi izan zuen tokatutakoa erdi bana. Horrenbestez, dokumentu notarial baten bidez borondate hori eta entrega bera islatu ziren; baina ez zen egin inolako aipamenik Margaritari buruz. Ronaldori zegokion erdia honek bere emaztearekin zeukan kontu korrante bereizigabearen ingesatu zuen. Ezin zen baieztatu Margaritak eragiketak egin zituela kontu horretan, bestelakoak erabiltzen baitzituen gastuak antolatzeko, nominak sartzeko, hipoteka ordaintzeko...Ronaldok, ordea, kontu korrante hori erabiltzen zuen, adibidez BMV auto bat erosteko, jabea bera bakarrik zelako. Margaritak epaiketa arrunteko demanda jarri zuen Ronaldoren aurka, saldoaren erdia bere jabetzakoa zela adieraz zezan. Hala ere, lehen eta bigarren auzialdietan uziak ezesten dira. Auzitegi Gorenera heltzen da Margarita.

Errekurtsogilearen oinarri juridikoak eta Salaren erabakia: Margaritak epaiek KZaren 392, 393, 397 artikulua urratzen dituztela alegatzen du. Banku-kontuaren dirua demandatuaren jabetza eskusiboa da, loteriaren ondorioz jaso zituen amarengandik. Bere emaztearekin zeukan kontu korrante bereizigabearen sartzeak ez zuen esan nahi emandako dirua dohaintzan eman zuenik. Ronaldok egindako eragiketa emazteari kontuko funtsak xedatzeko ahalmena ematera mugatzen da. Amak dohaintza bat gauzatu zuen Ronaldoren alde eta ez bere emaztearen alde; notario-eskrituran horri buruzko borondatea adierazi baitzen. Bere aldetik, *animus donandi* ez zen egon eta horrek galarazten du Margaritak diru haren jabetza bereganatzera. Konklusioek argi uzten dute

---

<sup>100</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dbd41e364ed8f92b/20030428>

ez dela existitzen ondasun-erkidegorik (392. art) kontu korronte zehatz honek biltzen dituen funtsen gainean. Gainera, ezkontideak ondasun-banantze erregimenean zeuden ezkontuta; zehazki, orain gauzatu nahi den ondare-lotura saihestu nahi duen erregimena. Margaritari ezin zaio esleitu kontu horretan dagoen diruaren erdiaren jabetza; titular izan arren ezin baitu frogatu bertako dirua bere jabetzakoa dela.

Doktrina: Sala honen doktrina errepikatua da banku-kontu korronteak funtsen eskuragarritasuna adierazten duela haren titularren alde, atxikitzen dituen bankuaren aurka. Ezin da onartu kontu horietan gordailututako dirua jabetza propioa dela, titular gisa agertze hutsagatik. Gordailu-kontratuan, gordailugilearen eta gauza jasotzen duen gordailuzainaren arteko harreman juridikoa ezartzen da. Aitzitik, gordailututako legezko egoera ez da aldatzen, gordailututakoari dagokionez, xedatzeko ahalmena egikaritu dezakeen pertsona edo pertsonak izendatzearen ondorioz. Gordailu horiek, beraz, ez dakarte gordailututako objektuen gaineko jabari-erkidegorik, eta auzitegiek euren jabetzari buruz xedatzen dutena bete beharko da<sup>101</sup>.

*AGaren 887/2011 Sententzia, azaroaren 25ekoa (RJ 8016/2011)*

Aurrekariak: Belen eta Alfredo izatezko bikotea ziren eta zehaztugabeko banku-kontuak zituzten. Ezkontzeko asmoa zuten baina Alfredo 2003an hil zen bat-batean, eta bere gurasoek (Teodoro eta Amparo) demanda aurkeztu zuten Belenen aurka, berak kontutik ateratako kantitateak zirela eta. Bere iritziz, Belen bidegabe aberastu zen banku-kontu horietatik, eta kalte egin zion Alfredoren jaraunspenari. Lehenengo eta bigarren auzialdiek ez zutenez aitortu bidegabeko aberasterik, Alfredoren gurasoek kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuten.

Errekurtsogilearen oinarri juridikoak eta Salaren erabakia: Errekurtsogileek alegatu dute Sala honek bidegabeko aberasteari buruz emandako doktrina urratu dela. Arrazoia baztertu egin behar da, doktrina hori ez baita aplikagarria kasu honetan, nahiz eta Sala honek batzuetan aplikatu izan izatezko harremana haustearen ondorioz sortutako arazoak konpontzeko edo, zehazki, haustura

---

<sup>101</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/307329afb7f9ed18/20130226>

horren ondorio ekonomikoak zehazteko. Bidegabeko aberastasun egoera bat hautemateko baldintzak hauek dira: lehenik, pertsona bat aberastea (ondare-gehikuntza); bigarrenik, beste aldearen pobretzea (ondare-galera); eta hirugarrenik, aberastutako pertsonaren ondare-esleipena justifikatzen duen arrazoirik ez egotea, horren kausa juridikoa. Azken betekizuna ez da gertatzen harreman juridiko bat dagoenean, bi aldeek adostasuna eta onarpena ematen baitute onartutako itunetan. Hau da, sala honen doktrinak behin eta berriz ezartzen duenez, ezin da bidegabe aberastu, aldeetako baten ondare-onura askatasunez onartutako itunen ondorio denean. Kausa juridikoaren erabateko gabeziak aberastea bidegabetzat hartzea eta legez kontrakoa izatea dakar. Kasu hauetan, biek askatasunez eta borondatez harreman juridikoa sortu zuten eta horregatik orain ezin da aitortu kausa juridikoa falta dela. Horrenbestez, kasazio-errekurtsoa ez da onesten.

Doktrina: Kasu honetan ezin da aldarrikatu bikotekideak (Belen) bidegabe edo bidegabe aberastu denik. Bi bizikideek, elkarrekin adostuta, banku-kontu bateratuak izan zituzten, eta kontu horietan nahastu ziren batak eta besteak sartutako zenbatekoak. Belen andreak aipatutako kontuetatik zenbatekoak atera izana ulertu behar da beste pertsonaren onarpenarekin eta baimenarekin egin zela. Era berean, orain jaraunselek (hildakoaren gurasoek) ezin dute eskatu kontuak ematea edo bidegabeko aberastea aitortzea, biek baimendu zutenagatik. Kasu horretan, onuragarriena zen heriotzaren unean kontu horien saldoaren erdia blokeatzea, interesdun bakoitzari zegokion presuntzioaren arabera (kontrako frogarik ezean); saldo horien jabetza zehazteko helburuarekin eta saldo horiei dagokien zatia Alfredo jaunaren jaraunspeneko ondarean sartzeko<sup>102</sup>.

*AGaren 534/2018 Sententzia, irailaren 28koa (RJ 3335/2009)*

Aurrekariak: Gracia andreak Lehen Auzialdiko Epaitegian demanda aurkeztu zuen Mario jaunaren aurka, diru-kantitate bat jaraunspenezko ondasunetara itzultzeko. Pura andreak bi kontu korrante zituen banketxean (aurrezki-kontua eta epe finkoko kontua), zeinetan Mario (bere semebitxia) titular bereizigabe gisa agertzen zen. Pura 2012an hil zen, eta bere testamentuan, bere hiru ilobak oinordeko unibertsal izendatu zituen, horien arten Gracia egonda. Mariok epe finkoko kontutik

---

<sup>102</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/774827b61cd8f320/20111216>

diru-kopuruak atera zituela ikusita, demanda jartzea erabaki zuen Graciak. Demanda osorik onartu zen baina gero, Probintzia Auzitegiak Marioren errekurtsua aztertu ondoren, onartu zuen errekurtsua, Mariok dohaintzat hartu zuelako Puraren egintza juridikoa, Auzitegiak Mariori arrazoa emanez. Hori dela eta, Gracia andreak kasazio-errekurtsua aurkeztu egin zuen Auzitegi Gorenean.

Errekurtsogilearen oinarri juridikoak eta Salaren erabakia: Gracia errekurtsogileak alegatzen du frogaren zamaren buruzko arauak urratu direla (PZL 217, 218.art) eta KZaren 632. artikularen urraketa eman dela baita ere; izan ere, lekukoen frogak zalantza-koak dir eta, era berean, dokumentuzko frogak ez dira behar bezala balioztatu. Salak horren oinarri juridikoa ezesten du, kasazio-errekurtsuak ez duelako barnebiltzen frogaren balorazioa berrikusteko aukera, instantzien eginkizuna izanik honako hori. Errekurritutako ebazpenak emandako frogaren balorazioa eta erabakia ez dator bat errekurtsogilearekin, baina ez du arbitrario edo oker bihurtzen. Errekurritutako epai horretan, auzitegiak, froga guztiak aintzat hartuta, *inter vivos* dohaintzat jotzen du kontu bereizigabea. Hori dela eta, 632. artikulua urratzen dela alegatzen du, dohaintzari dagozkion baldintzak bete ez direlako; adibidez, kasu honetan ez da betetzen ahozko dohaintzaren entrega automatikoa, bere ustez. Salak bigarren oinarria ezetsi du doktrina aplikatzearen ondorioz.

Doktrina: Otsailaren 15eko 83/2013 sententziak jasotako doktrinak hurrengo azaltzen du: "Bankuko kontu korrante bat irekitze hutsak modu desberdinean, saldoak entitatearen aurrean dituen ahalmen xedatzaileak baino ez ditu esleitzen; baina ez du berez zehazten jabetza, zehazkiago, barne-harremanak eta funtsen jatorrizko jabetzak zehaztuko dute soilik". Horrez gain, 1090/1995 sententzia horren doktrina berresten du zenbait ñabardura gehituz: "Kasu bereziren batean izan ezik, kontua irekitzeko moduagatik edo "ex post" baimenean adierazitako helburu edo asmoagatik". Auzitegiak badaki gordailu zehaztugabea edukitze hutsagatik, ezin dela baieztatu funtsen gaineko erkidego bat dagoenik; baina gauza desberdina da, bi titular edo gehiagoren izenean egotea gordailua sinatu ondoren, eta funtsen gaineko erkidegoa eratzea euren artean. Praktikatutako froga balioztatu ondoren, egiaztatu zen Pura andrearen borondatea izan zela dohaintza burutzea alderdi demanduari (Mario) liberekin (*animus donandi*) banku-kontratuan horrela adierazi zuelako (gordailuaren erdiaren jabetza Mariok izatea). Horrenbestez, gordailua eratzeko borondatea dago biek jarauntsiaren titulartasuna edukitzeko, ez soilik xedapen-



ahalmena. Amaierako eztabaidan aztertu behar da dohaintzak baliozkoa izateko baldintzak bete bazituen. Sala honek emandako doktrinaren<sup>103</sup> arabera: "... *inter vivos* dohaintzak ez dio hori izateari utziko, heriotzaren inguruabarra dohaintza-emailearengan arrazoi subjektiboa denean, baina dohaintzaren kausa espezifiko eta erabakigarri gisa izan gabe". Dohaintza ahozkoa izan zen baina ez zen egin dohaintza-emailearen heriotzaren mende. Kontuan hartzekoa da Pura andreak OGZk<sup>104</sup> zenbatekoaren erdia bakarrik aitortzen zion titular gisa, eta PFEGZren<sup>105</sup> aitortpenetan Pura andreak eta Mario jaunak gordailu horrek sortzen zituen interesen erdia aitortzen zutela. Beraz, funtsen gaineko jabekidetasun bat dagoela ondorioztatzen da, dohaintzaren ondorioz. Dena den, ezin da pentsatu titularrak gordailua beste baten izenean jartzean dohaintza bat egiten denik; izan ere, *animus donandiaren* existentzia ikertu behar da. Adostasunez jokatzuz gordailuaren kontratuan eta frogatuta *animus donandia*, dohaintzaren gaineko baldintzak (entrega eta onarpena) ekintza juridikoak barnebiltzen ditu. Hau guztia dela eta, kasazio-errekurtsoa osoki estimatzen da<sup>106</sup>.

*Leongo Probintzia-Auzitegiaren 312/2020 Sententzia, irailaren 29koa (RJ 1272/2020)*

Puntu honetara iritsita, komeni da gogoraraztea titularren artean gatazkak sortzen dituzten banku-eragiketa horiek ez direla soilik arlo zibilean aurkitzen; egoera horiek zigor-esparrura ere hedatu daitezke kasu batzuetan. Horretarako, Leongo Probintzia Auzitegiak 2020an eman duen sententzia bat aztertuko dugu, non titularkideari bidegabeko jabetze delitu bat leporatzen zaion. Ikusiko dugunez, zigor-esparruak ez dauka arlo zibilaren prozedura eta eskumen berdina; izan ere, ezin ditu ebatzi arlo zibileko auziak eta ebazteko eremu txikiagoa du gai honetan. Horregatik, nire aburuz, kereilariak zegozkien akzio zibilak egikaritu behar izan zituzten hasieratik. Behin sententzia zibila emanda, oinarri juridiko gehiago izango lukete euren interesak defendatzeko eta

---

<sup>103</sup> 1979ko azaroaren 7 eta 1995eko ekainaren 9an emandako epaiak.

<sup>104</sup> Ondarearen gaineko zerga.

<sup>105</sup> Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

<sup>106</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/575db8b5a36bed7f/20181015>

bere uziak oinarritzeko. Dena den, Auzitegiak aplikatutako doktrina aztertzea onuragarria da gai hau hobeto ulertzeko:

“Casilda akusatuak hiru banku-kontu zituen: horietako bi Juan Pedro nebarekin eta gainerakoak Juan Pedro eta Geronimo nebekin. Juan Pablo 2019ko azaroaren 8an hil zen, seme-alabarik gabe eta ezkongabea. Oinordetzaren hasierari ekin zioten, baina testamenturik egin ez zuenez, *abintestato* oinordetzaren bidez gauzatu zen. Azkenik, bere ilobek, eurena zen jarauntsi ondasunen zatia onartu zuten (laurden bat). Hala ere, azaroaren 11n eta 28an, Casildak entitateari agindu zion kausatzailearekin zituen funts guztiak bere jabetzako kontu eskusibo batera eskualdatzeko. Casildak kopuru horiek xedatu zituen, gero jaraunselek ezin izan zituzten kopuru horiek jaso. Horregatik, akusazio partikularrak (ilobak eta jaraunselek) jarritako kereilaren eta Ministerio Fiskalak egindako akusazio-idazkiaren helburua Casilda bidegabeko jabetzeagatik kondenatzea zen, Zigor Kodearen 253. artikuluan tipifikatutako delitua, hain zuzen ere.

Auzitegiaren erabakia eta doktrina: Banku kontu korranteak funtsen eskuragarritasuna adierazten du titularren alde, eta ezin da onartu gordailututako dirua Casildaren jabetzako dela titular bereizigabe gisa agertze hutsagatik. Beraz, titulartasunak ez dakar funtsen gaineko jabetzearik, eta auzitegiek euren jabetzari buruz ebazten dutena bete behar da. Auzi honetan, jaraunsele bakar batek ere ez du frogatu funtsen jabetza eskusiboa kausatzailearen alde; beraz, **ezin da baieztatu Casildak xedatutako saldoa Juan Pedoren jaraunspenari dagokiola**. Era berean, epaiketa-ekitaldian ez zen egiaztatu akusatuak ziur zekienik kontu korranteetatik zetozen funtsak beste pertsona batzuekin banatu beharreko ondasunak zirela. Doktrina errepikatua da, halaber, zalantzarik gabe, funtsen jatorriaren frogarik ez dagoenean, Zuzenbide pribatuak berdintasun-presuntzioaren irtenbidea ematen duela (KZaren 393 eta 1138. art). Horrela, "zati berdinetan zatituta dagoela ulertuko da, kontrakoa frogatzen ez den bitartean". Hala ere, berdintasun-presuntzio hori, Zuzenbide pribatuaren eremuan ondare-ikuspegitik normaltasunez jarduten duena, ezin da prozesu penalaren testuinguruan onartu Konstituzioaren 24. artikuluan jasotako errugabetasun-presuntzioaren aurka doalako. Jabetza eskusiboa aitortzea arlo zibileko eskumena da, eta auzitegi eskudunek ez zuten kontu hau ebatzi, epaitegi penalak ezin zuen kontu korranteen saldoen titulartasunaren inguruan ebatzi. **Errugabetasun-presuntzioaren** eskemaren inguruan du eskumena eta horren harira, akusazioek ekarritako kriminalitate-zantzuak edo frogak

ezin dira erabili, ez baitira nahikoak, ahulak dira. Ez da frogatu Casilda andreak transferentzia-agindu horiek eman zituenik besterena berea egiteko borondatearekin, eta Auzitegiak ez du elementu nahikorik jaraunslerei esleitzeko kontu korronteetako saldoren bat. Delituaren elementu objektiboen (gauza itzultzeko obligazioa izatea, berea bihurtzeko borondate egotea, ondare-kaltea eragitea) galera dela eta, akusatua erantzukizun kriminal guztietatik absolbitzen da. Auzitegiak absoluzio-epaia ematen du, baina akzio zibilak erreserbatuta, organo judizial eskudunaren aurrean bide zibilean komeni bazaie akzio horiek egikari ditzaten<sup>107</sup>.

#### IV. ONDORIOAK

Lan honetan zehar, horrelako banku kontuetara bideratutako legeria urria ikusi dugu. Ez dago horiek arautzen dituen lege espezifikorik, eta, horregatik, Kode Zibilean jasotako eta aplikagarriak diren arauak lan interpretatzailea egin izan zaie. Azken hamarkadetan, Auzitegiek arauak interpretatu dituzte irizpide bateratu bat ezarri ahal izateko. Adibidez, ezin bada zehaztu kontuaren jabetza eskusiboaren kuota zehatza, kreditua zati berdinetan zatituko da 1138. artikulua aplikatuz. Hala ere, oraindik badaude doktrina zuzen aplikatzen ez duten organo jurisdikzionalak, zeren eta batzuetan kreditua zati berdinetan banatzeko erabaki izan dute funtsen jatorria kontuan hartu gabe, adibidez. Epaitegiek erabaki kontrajarriak hartzean, herritarren segurtasun juridikoa gutxiagotu daiteke; hori dela eta, egokia litzateke horrelako banku-kontuak legeztatzea eta legedi propioa izatea. Ikusi dugunez, *solidaritate aktibo atipiko* baten aurrean gaude bere izaera eta funtzionamenduagatik (ez da ohiko obligaziozko harremana) eta horren harira, legedia egokitzeko eta moldatzeko beharra dago.

Arrisku handiko banku kontu korronteak dira, batez ere titularrentzat, beren barne-harremanetan prozedura judizialaren hasiera ekar baitezakete. Gainera, bankua soilik kontratutik sortutako betebeharrak bete behar dituen finantza-erakundea da, eta gutxitan erantzuten du omisioagatik. Kontu hauetan, solidaritate aktiboak funtzionatzen duenez, edozein titularrek erabili ditzake funts guztiak entitatearen aurrean, eta bankuak ez du jarduera okerrik egiten. Gainera, besteek egindako

---

<sup>107</sup> <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ddd0064485082eab/20210302>

mugimenduen berri ez die gainerako titularrei eman behar, banku-kontu mota hori eratzean beren adostasuna eta onespena eman dutela uste baita. Ikusi dugunez, kontu horiek harreman ona duten senideek edo elkarrenganako konfiantza duten bikotekideek edo ezkontideek eratzen dute, eta hori da horrelako kontu bat izatearen oinarria eta arrazoia, eta arrisku hori onartzea ahalbidetzen duena. Baina denboran zehar, harreman orotan gertatzen den bezala, krisiak edo konfiantza kaltetzen duten gatazkak sor daitezke. Demagun bikote bat beheraldi txiki bat zeharkatzen ari dela, eta bietako batek auto bat erosten duela, bien banku kontuaren funtsekin. Beste bikotekideak ezingo luke alegatu bidegabe aberastu dela bestea eta bueltatu behar dituela funts horiek, doktrinak uste baitu badagoela aurretiazko baimena, mantentzen duten konfiantzaren ondorioz. Beste gauza bat izango litzateke jabetza eskusiboko saldoetatik sortu diren funtsak berreskuratu nahi izatea, borondate eta konfiantza hori desagertu egin baita. Egokiena adierazpenezko prozedura hastea izango litzateke, kasu horretan, funtsak jabetza eskusibokoak direla adierazteko. Prozedura hori abian dagoen bitartean, kontua blokeatu beharko litzateke ondasun pribatiboak babesteko eta bien interesak defendatzeko. Edozein titularrak bankuari jakinaraztean konfiantza hautsi egin dela, horrek efektu juridikoak izan behar ditu automatikoki kontuarengan; hala nola kontuaren aldebakarreko blokeoa, nire aburuz. Nolanahi ere, etorkizunean gertatu daitezkeen gatazkak aurreikusi behar dira konponbidea emateko. Mendekua hartzeagatik, haserregatik...titularren harremana hautsi daiteke eta legeriak egoera horretarako bideratutako konponbidea aurreikusi beharko luke. Ikusi dugu doktrinak ahalbidetzen duela aldebakarreko blokeoa; hala ere, obligaziozko harremanetan, alderdien borondatearen autonomiaren menpe geratzen da eta horregatik, sinatutako banku-kontratuan begiratu beharko litzateke zer adostu den eta zer ez zehazteko.

Titularrek elkarren artean desadostasunak izan baditzakete, titular bat hiltzen denean horiek handitu egiten dira. Hildako titularraren jaraunselek eta bizirik dirauen titularrak interes kontrajarriak izan ditzakete eta, batzuetan, zaila izango da jarauntsiko ondasunei zein proportzio dagokien zehaztea. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak dioenez, solidaritatea ez da desagertzen heriotzarekin, eta bankuak harreman juridiko bera izaten jarraitzen du bizirik dirauen titularrarekin. Hala ere, une horretan oinordekoek zein xedatzeko ahalmena daukaten erabakitzean, kontraesankorrek diren erabakiak hartzen dira. Batzuetan, instrukzioan, kontuaren erdia blokeatzen da, edo jaraunseari edo titularrari kontuaren % 50aren erabilgarritasuna xedatzen zaio,

edo oinordekoek xedapen-ahalmen berbera izaten jarraitzen dute. Erabaki hori banku-kontuen izaera eta funtzionamenduaren aurka doa. Solidaritateak bizirik badirau ahalmena gutxitzeko aldaketa ez litzateke gertatu behar. Ez dauka zentzurik; izan ere, solidaritatea desagertzen ez bada, jaraunslea titularraren posizio juridiko berean subrogatuko da, ahalmen berberekin. Beraz, nire iritziz, xedapen-ahalmen bera transmititu beharko litzateke, baldintza berberetan. Baina gero azalduko dudan bezala, xedapen-ahalmena ezin da transmititu, nire aburuz; izan ere, oinordekoek soilik zegokien jabetza bereganatu behar zuten. Bankuak beti titular baten heriotzari buruzko klausulak sartu ohi ditu kontratuan gero kaos batean murgilduta ez aurkitzeko. Batzuetan, bankuak blokeatzen du kontu osoa, eta, beste batzuetan, erdia, legezko jaraunsle gisa agertu eta dagozkion zerga-betebeharrak bete arte.

Hala ere, nire ustez, aginduzko arau bat egon beharko litzateke irizpide bateratua egon dadin, interes guztiak babesteko eta etorkizunean auziak saihesten saiatzeko. Adibidez, kontu osoa automatikoki blokeatzea badaezpada, jaraunsle legitimoek kontu hori erabili ahal izateko behar diren dokumentuak izapidetu arte. Beste irtenbide bat izan daiteke kontua berdin mantentzea, edozeinek (titularrak edo jaraunsleak) blokeoa eskatu arte. Modu honetan, jaraunspeneko ondarea (egotekotan) eta beste titularraren ondare eskusiboa babestuta egongo dira, oinordetza prozesua martxan egonda. Ondoren, bide judizialetik ondasunen jabetza norena den edo jarauntsian integratu behar diren argitu daiteke. Hala eta guztiz ere, gerta daiteke beste gertakizunek eragina izatea kontua blokeatzeko, nahiz eta egiaztatuta geratu jaraunsle izaera legezkoa dela. Adibidez, ezkontzaz kanpoko filiazio prozedura bat martxan egotea (jakiteko hildakoak bestelako seme-alabarik bazituen), banku-kontuan zuzeneko ondorioak izan ditzakeelako. Azkenean, imajinatu legezko jaraunsle izaera egiaztatzen dela eta berari dagokion oinordetza-zerga ordaindu ondoren, kopuru handiak edo guztiak ateratzen dituela banku-kontutik. Dirua kentzea bizirik dagoen titularraren edo gainerako oinordekoen interesen aurka joan daiteke; horregatik, arrisku handiko egoera hau gehiago babestu behar da konponbideak aurreikusiz. Laburbilduz, ez da arrisku handiko eragiketa soilik bikote sentimental edo familiar batentzat; bizirik dirauen titularraren eta titular hildakoaren oinordekoen artean arrisku handiak eta diru-galerak sor daitezke. Nire aburuz, kontua blokeatzea izango litzateke kautela izateko eta gatazkak prebenitzeko neurri egokia; edo kontua blokeatzea edozeinek eskatzerakoan (aldebakarreko blokeoa). Nahiz eta oinordeko izaera eduki, komenigarria litzateke kausatzailearen jabetzak zehaztea, ondoren, jaraunspeneko banaketa

egiteko. Hala ere, bestelako egoerek behartu dezakete kontuaz baliatzea; beraz, zenbait baldintzatan ahalbidetu daiteke xedapen-ahalmena egikaritzea (zergak ordaintzeko obligazioa, nominak kontutik ateratzeko beharra...).

Bestalde, elkarrekiko konfiantzaren faktorea daukagu, nire ustez alderdien artean ezinbestekoa dena. Titularrak beste pertsonarekiko bere borondatea islatu du, harengan jarri baitu konfiantza, eta hori da horrelako kontu bat eratzeko arrazoia. Aldiz, agian titularraren jaraunsleek ezin dezakete izan ezaugarri hori, ez baitago aurretiko konfiantzarik; are gehiago, interes kontrajarriak eduki ditzakete, denboran luza daitezkeenak. Banku-kontuaren xedatzeko ahalmena izatea titularren arteko itunaren ondorioa da. Itun horretan, elkarrekiko konfiantza funtsezko osagaia da titularra izendatzeko eta xedapen legitimazioa izateko. Kausatzaile horrengan konfiantza jarrita zegoen, eta kausatzailea hiltzean, desagertu egiten da akordio honek ahalbidetzen duen konfiantza; hau da, oinordekoek ez daramate beharrezko konfiantza hori. Horregatik, nire aburuz, oinordekoek soilik bereganatu beharko lukete jabetza eskusiboa eta ez xedapen-ahalmena. Aitzitik, egoera hau kontratuetakoa klausulen bidez konpondu daiteke. Kontratu guztiek islatu beharko lukete alderdien borondatea titularretako bat hilez gero: jaraunsleek xedapen-ahalmenei berdin eutsiko diete, biek kontua betiko ixtea erabaki arte (ikusitako bezala, bien arteko akordioa beharrezkoa da kontratua azkentzeko), eta, ondoren, barne-harremanek jabetza eskusiboa ezarriko dute frogatu badaiteke (zehazterik ez badago zati berdinetan banatuko da 1138. artikulua aplikatuz). Hau da, titularrek onartzen dute konfiantza beste batengan jartzea (oinordekoek) eta xedapen-ahalmenak transmititzea. Aitzitik, hartu dezakete bestelako erabakia xedapen-ahalmena ez transmititzeko. Kasu honetan, titularrak ez dira fidatzen eta nahiago dute kontua blokeatzea oinordetzaren tramitazio guztia egin arte. Azkenean, jaraunsleengan konfiantza hori jartzen den edo kontua blokeatzen den erabaki beharko litzateke, badaezpadako neurri gisa. Blokeo horrek indarrean jarraituko luke Auzitegiak funtsen jabetza eskusiboari buruzko erabakia hartu arte. Laburbiltzeko, nire iritziz, titularrek egoera honi buruzko euren borondatea islatu beharko lukete banku-kontratuan, eta islatu ezean, legeak aurreikusita izan beharko luke honen irtenbidea.

Badakigu legeria aplikagarri gutxi dagoela, eta horregatik bankuek bezeroei aukera eta irtenbide horiek eskaini behar dizkiete, etorkizunean sor daitezkeen arazoak saihesteko. Informazioa emateko betebeharra batzuetan sinplista da, eta bezeroek ez dute pentsatzen etorkizunean zer gerta

daitekeen; horregatik, bankuek beren informazio-lanak areagotu behar dituzte, titular bat hiltzean hutsunerik egon ez dadin. Bestalde, legedia zehatzagoa eman beharko litzaioke gai osoari: oinordekoen ahalmenak eta betebeharrak, kontuaren blokeo automatikoa egongo den ala ez titularra hiltzean, kontua ez blokeatzeko salbuespenak, kontua xedatzeko betekizunak titularra hiltzean...**Nire iritziz, banku-kontuak berdin funtzionatu beharko luke bizirik dirauen titularrentzat (solidaritatea ez delako desagertzen heriotzarekin). Aldiz, titular hildakoaren oinordekoek ezingo lukete inolako funtsik erabili beharrezko dokumentazioa izapidetu arte (oinordetza-zerga ordaindu, jarauntsiaren onarpena notariotza-eskrituran...).** Baina tramitazio osoa egin arren, oinordekoek ez dute beste titularrekiko aurretiazko konfiantza (kontu bereizigabeak ahalbidetzen duena) eta, horren ondorioz, ezingo lukete xedapen-ahalmenik bereganatu. Hau da, oinordekoek kausatzailearen jarauntsiari dagozkion funtsak soilik erabili ahalko lituzkete eta, era berean, bizirik dirauen titularrak eskuragarritasun osoa mantenduko luke banku-kontua desagertu arte. Egoera honek ezingo du inoiz saihestu oinordekoek dauzkaten akzioak erreklamazio judizialak egiteko (titularrak jarauntsiaren aurkako eragiketan egin baditu). Hori da nire aburuz aplikatu behar den erregimena, legedi zehatz batean araututa egon behar dena. Aldi berean, legedi propio berak askatasunezko aldea eman behar die bezeroei, haiek banku-kontratuetan bere borondatea islatu dezaten. Legeria aplikatuko litzateke baldin eta alderdiek sinatutako kontu-kontratuan ez badago berariazko aurreikuspenik, funtsen xedapenari eta jabetzari dagokienez.

## V. BIBLIOGRAFIA

### DOKTRINA

- AGUILA-REAL, Alfaro: “Derecho bancario”, *Revista Jurídica Universidad Autónoma De Madrid*, 2. liburukia, 2016.
- ARNAU MOYA, Federico: “Lecciones de Derecho Civil II: Obligaciones y contratos”, *Colección jurídica y económica Sapienta*, Publicacions de la Universitat Jaume I, Balentzia, 2009.
- ASSAMA RAFI, Mónica: “Problemática en torno a las cuentas bancarias indistintas”, *Contratación bancaria*, 1998.
- BELTRÁN ALANCETE, Teresa: *Aspectos jurídicos de los Contratos atípicos*, Bosch Editor, Bartzelona, 1994.
- BLASCO GASCÓ, F: “ *Obligaciones y Contratos*”, 3.argitalpena, Tirant lo blanch, Balentzia, 1998.
- CUENA CASAS, Matilde: *Familia y concurso de acreedores*, 1.argitalpena, Civitas, 2010.
- DIÉZ-PICAZO, Luis: *Instituciones de Derecho Civil*, 2. argitalpena, 1. liburukia, Tecnos, Madril, 1998.
- DIÉZ-PICAZO, Luis: *Fundamentos del Derecho civil patrimonial*, 6. argitalpena, Civitas, Madril, 2008.
- FERRANDO VILLALBA, Lourdes: “Titularidad indistinta de cuentas bancarias”, *Colección jurisprudencia Práctica*, Tecnos, 1998.
- GARIJO E ISASA, Manuel: “Obligaciones solidarias en Derecho romano”, *Revista general de legislación y jurisprudencia*, 21. liburukia, 55. zenbakia, 1879.
- GARRIGUES, J: *Contratos bancarios*, Madril, 1958; Balentzia, 2009.
- GIMÉNEZ-CANDELA: *Derecho Privado Romano*, 2. argitalpena, Tirant lo blanch, Balentzia, 2020.
- LACRUZ BERDEJO, José Luis: *Derecho de obligaciones. Parte General. Teoría general del contrato*, 5. argitalpena, Dykinson, Madril, 2011.
- LASARTE, Carlos: *Curso de Derecho Civil Patrimonial*, 18. argitalpena, Tecnos, Madril, 2012.
- LEÓN ALONSO, José Ricardo: *La categoría de la obligación in solidum*, 35. liburukia, Universidad de Sevilla, 1978.



- LETE DEL RÍO, José María: *Derecho de obligaciones*, 1. liburukia, Tecnos, Madril, 1988.
- MARÍN LÓPEZ, Manuel Jesús: “*Lecciones de Derecho Civil*”, 3. argitalpena, Tecnos, 2017.
- MARTÍNEZ NADAL, Apolonia: “Cuentas indistintas de titularidad conyugal”, *Revista de derecho bancario y bursátil*, 14.Liburukia, 59.zenbakia, 1995.
- MARTÍNEZ SANZ, Fernando: *Manual de Derecho Mercantil*, 20. argitalpena, 2. liburukia, Tecnos, Madril, 2013.
- MUÑOZ PLANAS, José María: *Instituciones del mercado financiero*, 2. liburukia, BSCH, Madril, 1999.
- MUÑOZ PLANAS, José María: “Titularidad y propiedad en las cuentas bancarias indistintas”, *Revista de derecho bancario y bursátil*, 12. liburukia, 45. zenbakia, 1992.
- NÚÑEZ-LAGOS, Francisco: *Contratos bancarios*, Centro de Formación del Banco de España, Banco de España, 1996.
- PARRA LUCÁN, María Ángeles: *Teoría general de la obligación y el contrato. La interpretación correctora del artículo 1137*, 4. argitalpena, Edisofer, 2016.
- PÉREZ ÁLVAREZ, Miguel Ángel: *Curso de Derecho Civil: Derecho de Obligaciones*, 3. argitalpena, Colex, Madril, 2011.
- RAMÓN CHORNET, Juan Carlos: *Código Civil Comentado*, 3. liburukia: *De las obligaciones y los contratos*, Aranzadi Civitas, 2011.
- RASCÓN GARCÍA, César: *Manual de Derecho Romano*, 2. argitalpena, Tecnos, Madril, 1996.
- RODRÍGUEZ ENNES, Luis: “La “Obligatio” y sus fuentes”, *Revista internacional de Derecho Romano*, 2. liburukia, 2009.
- RODRÍGUEZ GUITIÁN, Alma María: “Pluralidad de acreedores y modernización del Derecho de obligaciones”, *Anuario de Derecho Civil*, 70. liburukia, 2. zenbakia, 2017.
- TAPIA HERMIDA, Alberto. Javier: “El concepto y clasificación de los contratos bancarios”, *La contratación bancaria*, Madril, 2007.
- VALPUESTA FERNÁNDEZ, M<sup>a</sup> Rosario: *Betebehar eta Kontratuei buruzko zuzenbidea*, 2. argitaraldia, Deustuko Unibertsitatea, Tirant to blanch, Bilbo, 1996.

## **JURISPRUDENTZIA**

- AGren 166/1988 Sententzia, martxoaren 4koa (RJ:17009/1988)
- AGren 760/1988 Sententzia, urriaren 19koa (RJ:7252/1988)
- AGren 85/1991 Sententzia, otsailaren 8koa (RJ:13198/1991)
- AGren 701/1992 Sententzia, uztailaren 7koa (RJ:5555/1992)
- AGren 1061/1994 Sententzia, azaroaren 11koa (RJ: 7495/1994)
- AGren 1090/1995 Sententzia, abenduaren 19koa (RJ:6498/1995)
- AGren 243/2003 Sententzia, martxoaren 14koa (RJ:1735/2003)
- AGren 278/2003 Sententzia, martxoaren 20koa (RJ:1943/2003)
- AGren 413/2004 Sententzia, maiatzaren 24koa (RJ:3534/2004)
- AGren 404/2004 Sententzia, maiatzaren 25ekoa (RJ:3599/2004)
- AGren 784/2005 Sententzia, urriaren 28koa (RJ:6603/2005)
- AGren 887/2011 Sententzia, azaroaren 25ekoa (RJ:8016/2011)
- Bartzelonako PAREN 498/2012 Sententzia, irailaren 21koa (RJ:14257/2012)
- AGren 83/2013 Sententzia, otsailaren 15ekoa (RJ:505/2013)
- AGren 241/2013 Sententzia, maiatzaren 9koa (RJ:1916/2013)
- Bartzelonako PAREN 458/2013 Sententzia, urriaren 16koa (RJ:12424/2013)
- Malagako PAREN 475/2018 Sententzia, uztailaren 20koa (RJ:1498/2018)
- AGren 534/2018 Sententzia, irailaren 28koa (RJ:3335/2009)
- Bartzelonako PAREN 430/2019 Sententzia, urriaren 28koa (RJ:12632/2019)
- Leongo PAREN 249/2020 Sententzia, irailaren 14koa (RJ:1062/2020)
- Leongo PAREN 312/2020 Sententzia, irailaren 29koa (RJ:1272/2020)

## **LEGEDIA**

-1889ko uztailaren 24ko Kode Zibila

-7/1998ko Legea, apirilaren 13ren kontratazioaren baldintza orokorrei buruzkoa

-1/2000ko Prozedura Zibilaren Legea

-10/2014 Legea, ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen ordenazioa, gainberaketa eta kaudimenari buruzkoa.

## WEBGUNEAK

-BBVA webgunea: <https://www.bbva.es/finanzas-vistazo/ef/cuentas/descubierto-en-cuenta.htm>

-CUENA CASAS, Matilde (2012): *Cuentas indistintas, crisis matrimonial y prácticas bancarias*, Hay Derecho.com: <https://www.porticolegal.com/articulos/402.pdf>

-“Deuda y Responsabilidad”. Enciclopedia Jurídica: <http://www.encyclopedia-juridica.com/d/deuda-y-responsabilidad/deuda-y-responsabilidad.htm>

-“Memoria de Reclamaciones”, Espainiako Bankuaren webgunea (2013-2):

<https://www.bde.es/f/webbde/Secciones/Publicaciones/PublicacionesAnuales/MemoriaServicioReclamaciones/19/Documentocompleto.pdf>

-ESTEVE, Asunción (2019): *Tema 3: Deuda y responsabilidad*, Bartzelonako Unibertsitatea, studocu.com: <https://www.studocu.com/ca-es/document/universitat-de-barcelona/obligaciones-y-contratos/apunts/tema-3-deuda-y-responsabilidad/2875718/view>